



ARGIA

Etxebizitza kooperatiboak

Abaraska proiektua oinarriak jartzen



» LARRUN: MASIBOKI ZELATATUTAKO GIZARTEA

» SIRIA GAINEAN BEROTURIK, GOLKOKO HIRUGARREN GERRA IRAKITEKO BIDEAN

» MIREYA ANDRADE, FARC: "BAKE PROZESUA APURTUKO BALITZ ERE, EZ GARA ARMETARA ITZULIKO"

UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO SUMMER COURSES

UPV/EHU

www.uik.eus



ELIKADURA BURUJABETZA HEZKUNTZA FORMALEAN LANTZEKO ERREMINTAK

25.Eka - 26.Eka

Donostia / San Sebastián



UDA IKASTAROAK / CURSOS DE VERANO / SUMMER COURSES

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua - 4820007 Donostia / San Sebastián - T.: 943 219511 - info@uik.eus - www.uik.eus

Laguntzaile nagusiak / Colaboradores principales / Main collaborators

Ikastaroaren laguntzaileak / Colaboradores del curso / Course collaborators



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Siria gainean beroturik, Golkoko Hirugarren Gerra irakiteko bidean

IRITZIAK

- 17 Mikel Zurbano
- 18 Iñaki Antigüedad
- 19 Jose Inazio Basterretxea
- Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Joxe Iriarte *Bikila*



Mireya Andradek 27 urte eman ditu FARCen. Erakunde armatuak eta Kolonbiako Gobernuak Habanan egindako negoziatioetan parte hartu zuen, Genero Gaietarako Azpibatzerdeko kide gisa. ORIOL CLAVERA

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: MARÍA FIGOLS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Pello Elzaburu: "Oso kutsatuta gaude Espainiako Estatuko kultura krisiarengatik" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Abaraska proiektua: Etxebizitza, auzoaren eragile sozial / Xalba Ramirez
- 28 | "Mendian ere Euskaraz" proposamena / Ainhoa Bretos
- 30 | Lazkaoko Enpaundi baserria: Ofizio zaharrak berreskuratzen / Iñaki Sanz-Azkue
- 33 | *Redadeg*, Britainiako "Korrika": urratsak eta galderak / Ainhoa Gutiérrez del Pozo
- 34 | Mireya Andrade (FARC): "Bake-akordioetatik ez da ia ezer bete, %18 edo" / Maria Colera
- 38 | Nori esleitu diote Donostiako AHTren geltokiko obra? / Axier Lopez
- 44 | Stalag fikzioa: amesten al dute israeldarrek emakume naziekin? / Gorka Bereziartua

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estixu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Botereari erronka

Batek sudur gorriak, besteak buruberoki *makarra*. Trikitixa eta pandero hotsek girotuta, Bizitza Da Handiena asteari bide eman diote. 60 herri mugimendu eta sindikatuk deituta "boteretik herritarren aurka egiten ari diren politikei" aurre egingo diete. Lehen ekintza indartsu gisa, hamasei urtez hutsik izan den zortzi solairuko eraikina okupatu dute Donostiako erdialdean, turistifikazio prozesu basatiaren erdian, 300 lagun kalean bizi diren hirian. Munduko Turismo Erakundearen bilera bertan antolatut dutela jakitun, erronka bota diote herritarrek botereari.

Argazkia: Dani Blanco · Testua: Lander Arbelaitz Mitxelena



200 milioi bideratu nahi ditu Bizkaiko Aldundiak, Supersur autopista 4 kilometro handitzeko.



“Gehiegizko kostua du, zentzugabea da eta ez da beharrezkoa, egungo autobidea ez baita iritsi espero zuten zirkulazio-bolumena izatera”

Enrique Antolin,
Ampliación Supersur Ez!
plataformako kidea




“Bolintxu [naturgune babestua] akabatuko dute, autoan goazenean bi minutu aurrezteko”

@ramonovelar



“Supersur, Hegoaldeko Tren Saihesbidea, Ezkerralde -Meatzaldeko parke teknologikoa, Bilboko Portua, ACB edo Petronor bezalako azpiegituri gehitu eta kontutan izan eskualde honetan meatzak eta industria astunak izan zuten eragina... Zein da jasangarritasunerako bidea?”

@ekHiN_eus



Preso ohiei ondasunak kentzeko operazioa

Argia

Espainiako Barne Ministerioak jakinarazi duenez, 50 euskal preso ohi ingururi ibilgailuak, kontu korronteak eta ondasun higiezinak erreklusatzeko operazioa burutu du Guardia Zibilak, “biktimak indemnitzatzeko funtsak lortzeko helburuz”.

Guardia Zibilak ustez preso ohienak diren hainbat auto eta furgoneta eraman ditu kaleetatik grua bidez (argazkian). Barakaldon, Gasteizen eta Hego Euskal Herriko beste hainbat tokitan atzeman dituzte ondasunak.

Juan Ignacio Zoido Espainiako Gobernuako Barne ministroak azaldu duenez, Zerga izeneko operazioan “ETArri loturiko delituengatik zigorturiko”

presoen ondasunak atzeman dituzte. Ministerioaren oharrak ñabardura dakar: ikertutako 50 preso ohi gehienak “kale-erasoengatik” zigortuak izan ziren bere garaian. Denera zortzi milioi euroko “zorra” lukete, espainiar arduradun politikoaren esanetan.

Atzemandakoen artean aparkalekuak, etxebizitzak eta lokal komertzialak daude. Baina ez dute zehaztu preso ohiek zein partizipazio duten ondasun horietan, jabe bakar ote diren edo jabetza harremana zein den.

Horrez gain, 45 kontu korronte blokeatu ditu Guardia Zibilak eta soldatapeko 30 langileren nominetan esku hartu dute, ustez preso ohiei lotuak, “lanbidearteko gutxieneko soldata gainditzen duten zatia kentzeko”.

“Jendarte antolatua ahaztea amaiera litzateke klase eta nazio ikuspuntutik”

ADOLFO ‘TXIKI’ MUÑOZ, ELA SINDIKATUKO IDAZKARI NAGUSIA

“ELA ez dator bat EH Bilduk egin duen ‘herri proposamena’ delakoarekin, bide hori egin nahi ez duenari zuzendu baitio (EAJ) (...) Subiranismoa eta ezker politiko eta soziala indartzea ez dago Estatuaren, ezta EAJren esku ere. Posible izateko lehentasuna eman behar zaio jendarte-ereduari, eta aliantza estrategikoak bilatu (...) Euskal Herrian bada indar militantea eta masa sozial nahikoa justizia sozialaren eta burujabetza-aren alde (...) Jendarte antolatua ahaztea amaiera litzateke klase eta nazio ikuspuntutik”. 2018-05-18



FAUNA PUBLIKOA

"Espainian barrena nabilenean ez ditut langileak edo enpresarioak ikusten, espainiarrak ikusten ditut; ez ditut gazteak edo zaharrak ikusten, espainiarrak ikusten ditut"

Albert Rivera,
Ciudadanos alderdiko burua

Qué pone en tu DNI



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorría

Ez dakit zein bihurgunetan erori zen "ez espainiarra, ez euskalduna: ni munduko biztanlea naiz" esaldia, baina aitortu behar dut txundituta nagoela konstituzionalismo espainiarraren estrategia berriarekin: aferra dagoeneko ez da Espainiako Estatuaren "problema territoriala" konpondu nahi izatea arazoa bera ukatuz –horixe baitzen denak munduko herritarrak garela aldarrikatzea, lehen eta bigarren mailako eskubide nazionalen hierarkiari horts eta bihotz eusten dien estatu batean–; askoz harago joan da Rivera, problema *guztiak* ukatuz, baina ez munduaren mundutasun globalean urtuz, baizik eta bandera nazionalarekin urkatuz.

Zer jartzen du zure DNIak? Ikusten? Ez dio ezer zure lan-baldintzez, bizi zaren auzoaz, sartu dituzun eta pagatu ez dizkizuten orduez, hipoteka ordaindu ezin duzulako etxetik ostikoka bota zaituen poliziaz, pipak –jatekoak– erosteko ere ematen ez duen pentsioaz, talde-bortxaketa baten bideoa ikusi eta pitilina gogortzen zaion epaileaz. Zer jartzen du horetaz DNIak? E? E? Horixe ba, ezer ez. Espainiarra zarena. Guztiak espainiar eta gustatzen ez bazai- zu, izorraitz (sic).

Falanhipster batekin eztabaidatzea alferrikako lana ez balitz, sotiltasun politiko pixka bat eskatzen duten kon-tuetan sartuko ginatke, adibidez, nazionalitatearen eta herritartasunaren artean dagoen diferentzian, bi gauza diferente baitira, nahiz eta Espainian sinonimo gisa erabili, nazio minorizatuak dituen estatu batean hori egiteak au- kera ematen duelako gutxiengoan daudenak zanpatzeko, Emilio Lopez Adanek noizbait esplikatu izan duen moduan. Bada, orain beste gutxiengo txanda dela dirudi: langile, langabe, emakume, zahar, gazte... Nazio horrek dena irens- teko gosea dauka. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**HITZA
HITS!**



ANALISIA



CAFeko langileak beste behin kalera atera dira, amiantoak hildako lankide eta senideak oroitzeko.

Autopsiarako frogak



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: LAB-CAF

Amiantoarekin gertatzen ari denak gero eta antza gehiago dauka gerraosteko eszenatoki ilun batekin, konpondu beharreko osasun arazo larri batekin baino. Orain jakin berri dugu Irungo familia baten historia: CAFen lan egiten zuen gizon batek bere birrikak gordetzeko eskatu zuen hil aurretik, eta horri esker jakin dute amiantoak izan zela bere heriotza eragin zuena.

Celestino Tolosa Irungo CAF lantegian aritzen zen galdaragile, eta 1980an gaizki sentitzen hasi zen. Hurrengo hamarkadak sufrimendu askokoak izan ziren, biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa diagnostikatu zioten eta 2006an, oso larri zegoela, transplantea egin zioten. Ez zuen funtzionatu eta 2008an hil zen.

Urte asko igaro ondoren, haren alaba Otsanda Tolosak aitaren heriotza ikeretzea erabaki zuen, amiantoak zerikusia izan zezakeelakoan. Celestinori kendu zizkieten birrikak izan dira hori baieztatu duten frogak, Santanderreko ospitale batek ondorioztatu du amiantoak sorturiko asbestosiak jota hil zela: "Berak beti izan zuen susmoa lanaren ondorioz gaixotu

zela, horregatik eskatu zuen birrikak gordetzeko", azaldu dio alabak *El Diario Vasco* egunkariari.

Egia jakitearekin, heriotza hark sorturiko dolua amaitzeko aukera dauka orain familiak, eta justizia egiteko bide berriak zabaldu dizkie senidearen organoei egin-dako autopsiak: laneko gaixotasunagatik dagokien prestazioa eskatuko dute epaitegian, baina batez ere, eragindako minaren "aitortza" nahi dute.

Tamalez, amiantoaren biktimek epaitegietan egin ohi duten bidegurutzea luzea izaten da oso -enpresek eta osasun administrazioak jarritako oztopoengatik-, eta askotan, hil ondoren lortzen dute aitortza hori. Penagarria da muturreko egoera horretara iritsi beharra, gerra baten bide bazterrean desagertutako biktimak bailiran, haren memoria berreskuratuko duen antropologo edo auzi-medikuak lurpetik noiz aterako zain.

Zapalduak antolatzen ari dira ordea: Irun eta Beasaingo CAFen lanuzte eta manifestazioak, "hiltzaile isilak" berekin eramandako biktimen alde; Nafarroan laguntza eta defentsa elkarte berria; Laudion amianto eskolatik kentzeko sinadura bilketa... Idazle hark zioen bezala, oraino ez gara hil esateko modua baita menpekoon hizkuntzan goraki aritzea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Soldata politikoak eta miseriazko pentsioak



Juan Mari Arregi

Pentsiodunek -PPk eta EAJk elikatutako salbuespen gutxi batzuk izan ezik-, bi alderdion paktu oraindik argitu gabeko arbuia dute, eta mobilizazioekin jarraitzen dute pentsio publiko duinen defentsan. Astelehenetako ohiko elkarretaratzei aste honetan gehituko zaizkie hiriburuetan deitu diren manifestazioak, maiatzaren 26an. PPren eta EAJren arteko akordioaren kontra daude ez zaielako aski iruditzen eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen segitzen dute, Europako Karta Sozialak dioen moduan.

Gobernuen tesia da sistemak ezin izango lukeela jasan pentsio txikiak gutxieneko 1.080 eurora igotzea. Hori diotenek eta pentsio miseria-bleak inposatzen dituztenek bestelako soldatak kobratzen dituzte ordea: Urkullu lehendakariak 7.140 euro jasotzen du hilean eta parlamentari batek berriz 5.000 euro. José María Aznarren ildo berean doaz beraz. Duela hamahiru urtetik urtean 80.000 euroko biziarteko pentsioa poltsikoratzen du Espainiako Estatuako presidente ohiak, eta inongo lotsarik gabe zera baieztatu du: "Ez badugu ezer egiten pentsioak pobretuko dira, 70 urterekin jubilatu behar da". Hori aurpegia!

Ez da egia sistemak ezin duenik herritarrek eskatutako pentsio igoera jasan. Borondate politikoa besterik ez da behar, eta lehentasunak jartzea aberastasuna birbanatzeko. Politika fiskal justuagoa, alegia. Zergatik jaso behar dituzte lehendakariak eta parlamentariak halako soldata potoloak, Euskal Herrian 250.000 lagunek 700 eurotik beherako pentsioa jasotzen duten bitartean? Are gehiago, pentsiodunen erdia hilean 1.000 eurora iristen ez den bitartean? Pentsiodun, gazte nahiz herritar, elkartuta segi behar dugu mobilizatzen, gaurko eta biharko pentsio publiko duinak lortu arte. Pauso bakar bat ere ez atzera!



ISABELLE MIQUELESTORENA

Gastibeltza filmak: Lapurditik ari Euskal Herri osoari so

SENPERE. Gastibeltza filmak egitasmoa aurkeztu dute, euskal zinema sortu eta produzitu asmoz abiatua. Senperen kokatuta dago eta sortzaileek Euskal Herri osoko euskaldun guztiengana heldu nahi dute. Eñaut Castagnet, Ximun Fuchs, Katti Pochelu, Josu Martinez eta Manex Fuchs dira sortzaile eta arizaleak. Muga administratiboak "oztopo" izan beharrean, "abantaila" bihurtu nahi dituzte. Euskal Herri osoko koprodukzioa landu eta zabaldu ostean, banaketa Frantziara eta Europara hedatu asmoa dute.

Kote Cabezudoren auzia, Udal Batzordean ere geldo

Maddi Txintxurreta

@mtxintxurreta

Kote Cabezudoren auziak Donostiako Udaleko ateak zeharkatu ditu: EH Bilduk eta Irabazik argazkilari donostiarraren biktimen arretari buruz galdetu diote Udal Gobernuari. Kote Cabezudoren Biktimen Sostengurako plataforma eta salatzaileen abokatua ez dira gustura geratu Udal Gobernuak emandako azalpenekin.

Kritika

Udal Gobernutik biktimei babesa eskainiko ote zaien eta horretarako zer baliabide jarriko duten galdetzeaz gain, Cabezudoren "biktimen elkartearekin harremanetan jarri ez izana" salatu dute bi alderdiek.

Irtenbide gutxi

"Gehiago izan da elkarri kexuka aritzea, zerbait konstruktiboa baino", adierazi du Mario Díez auziko 16 biktimaren abokatuak. Alderdiek Batzordean proposatu dute Bozeramaileen Biltzar bat sortzea auziari erantzuteko.

21 biktima gutxienez

2013an salatu zuen emakume batek lehen aldiz argazkilaria eta egun 21 dira salatu dutenak. Abokatuaren arabera, orain biktimak Cabezudo salatzeraz ausartzen dira, "auzipe-tua behin-behinean espetxean dagoelako".

KULTUR
OHITURAK



%28

baino ez dira, EAEn euskaldun eta irakurzaile direnen artean, liburuak euskaraz sarri irakurtzen dituztenak. Gaztelaniazko liburuak, ordea, sarri irakurtzen dituzte horien %84k.

%52

oso musikazaleak dira, %43 oso zinemazale, %17 oso antzerkizale, %15 oso museozale, %12 oso bertsozale.



AUZITEGI NAZIONALEA

"Desordena publiko terroristak" egotzi diete Oleretako hiru laguni eta Beasaingo bati. Iazko martxoan atxilotu zituzten Iruñean izandako liskar batzuen harira eta Espainiako Auzitegi Nazionalean abiatu da epaiketa. Fiskalak zazpina urteko espetxe-zigorra eskatu du guztientzat.



ZABALGARBIRA

Mallabiako Udalak baimena ukatuta ere, Gipuzkoatik 60.000 hondakin tona nahasi bertako zabortegira eramateko eskua sartu du Bizkaiko Foru Aldundiak.



ZAINTZA

EAEn, hamasei asteko gurasotasun baimena eskatu ahalko dute 2019tik aurrera bigarren umea edo gehiago dituzten familiek; aitek nahiz haurdun egon den emakumearen bikotekideak eskatu ahalko dute. Lehen umea izango dutenen kasuan, 2022tik aurrera jarriko da indarrean neurria.

Siria gainean beroturik, Golkoko Hirugarren Gerra irakiteko bidean



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Donald Trumpek AEBen aldetik eten duela Iranekin nuklearraz sinatutako tratua, Israelen Irango armadari eraso diola agerian lehenbizikoz eta arma berriekin, aurretik Mendebaldeko potentziek eraso egina ziotela Siriako gobernuari... Ekialde Hurbileko suteen –Palestina, Yemen, Siria– protagonista nagusiek deliberatua dukete haiek itzaltzeko urratsak eman ez eta gasolina gehiago jaurtitzea. Golkoko Hirugarren Gerra baten usaina aipatzea ez dirudi gehiegikeria.



“Siriako gatazkaren hariak inoiz baino nahasiagoak ageri dira” idatzi genuen Net Hurbil honetan martxoan. Geroztik, urrats berri bezain larriak eman dituzte protagonistetako batzuek bi hilabeteotan, horregatik duela bi hilabete titulu ipinitako “Sirian Estatu Islamikoa garaitu badute, zergatik ez da gerra amaitzen?” galderari erantzuten diola dirudi kronika honen izenburuak, Golkoko Hirugarren Gerra irakitetik gero eta hurbilago ageri delako.

Askori alarmak piztu zitzaizkion apirilaren 30ean Israelgo armadak zuzenean Irango militarrei eraso zienean, Siriako Haman daukan basea misilez jo, gutxienez 26 iraniar hil eta bertan zeuzkaten misilak suntsituz. Alabaina, operazioak bazituen xehetasun batzuk iradokitzen dutenak Israelen aldetik are probokazio handiagoa izan dela. Richard Silverstein eta Muhammad Sahimik akademiko eta analistek zabaldu dituzte *Middle East Eye* aldizkari elektronikoan.

Antza denez, Israelen Siriara bidalitako misilak ez dituzte jaurti F-16 hegazkinetatik, denek espero bezala, baizik eta itsasotik. Alemaniak eraiki eta finantziatutako *Dolphin* urpeko ontzietatik aireratu eta Jordaniako lurraldea zeharkatu ondoren lurreratu ziren Sirian, horregatik harrapatu dituzte ezustean siriarrek bezala irandarrak.

Apirilaren 30a arte inguruko ezein herrialde arabiar ez sen sekula ausartu Israeli baimenik ematera beste herrialde arabiar bati eraso egia zela.

Jordaniak, beraz, Siriaz gain Iran ere ofenditu du, larriago bihurtuz gobernu suniten –Saudi Arabia buru duen eta Jordania barne hartzen duen– blokearen eta Irandarren gidaritzapeko bloke xiitaren arteko etsaigoa.

“*Dolphin* urpeko ontziak erabiltzeko arrazoiak –idatzi dute Silverstein eta Sahimik– bat baino gehiago dira. Netantanyahuk Israelen arerioak (siriarrek, irandarrak eta neurri batean errusiarrek) harritu egin nahi ditu erasorako aukera bat baino gehiago daukala erakutsiz (...) eta Irani erakutsi bere arma berriekin zenbaterainoko kalteak eragin diezazkiokeen: Israelen Irango eraso balu, edo erasoko duenean, urpeko ontziok paper erabakigarria jokatuko lukete”.

Israeldik Iranera arteko tartea kontutan harturik, armada juduaren hegazkinen lanak izango lituzkete jomuga irandarrak ondo harrapatzeko. Urpeko ontziak, misilak jaurtitzeko ahalmena edukirik, alternatiba egokia dirudite horretarako. Hain zuzen horregatik, Silverstein eta Sahimik lehendik kritikatu zuten zortzi urpeko ontzi eraikitzeke Alemaniak eta Israelen sinatutako kontratua, eskualdean armen ugaritzea sustatzeaz gain *Dolphin*ek badutelako arma atomikoak eramateko ahalmena, holo-kausto nuklearra eragiteko alegia.

Erasoaren aurrean Errusiak jokatu duen paper epela azpimarratu du, berriz, Dan Glazebrook analistak: siriarrek ezin izan dietela aurre egia Israelen igo-

rritako misilei oraindik ez dituztelako eskuratu 2010ean Errusiak agindutako *S300* misil berriak. AEBk behin eta berriro erakutsi duten bezala Israelen edozein abentura militarri oniritzia emango diotela, Errusiak ez ei du Iran hain begi-itsuan babesten: Siriako gatazkan egin beharrekoaz ere kalkulu ezberdinak dauzkate, errusiarrek ez dute israelarrekin gehiegi haserretu nahi... “Eta onartzen badu –oroitarazten dio Glazebrook Errusiari – Irak, Siria eta azkenean Iran suntsitzea, onartzen ari da Errusia bera isolatzea, hari ere noizbait iritsiko baitzaio bere txanda”.

Sunitak+AEB versus Xiitak+Errusia

“Golkoko Hirugarren Gerra prestatzen” titulupean idatzi du maiatzaren 14an bere analisisia Michael Klare Bake eta Segurtasun ikasketetako irakasle estatubatuar ezagunak. Honela abiatzen da: “Donald Trumpek jakinarazi duenean Iranekiko hitzarmen nuklearra desgitea, guk denok hasi beharra daukagu galdezka zer ekar dezakeen Golkoko Hirugarren Gerra batek. Erantzuna erakusten digu azken 16 urteotan Amerikak Ekialde Hurbil zabalean daukan esperientziak, hau da, ez dela polita izango”.

Aurreko biak, 1990ekoa eta 2003ean Iraken inbasioarekin hasitakoa, AEBen garaipenez amaitu omen ziren, baina ordainetan Estatu Islamikoa bezalako mugimendu bortitzen sorrera ekarri, milioika jende sustrairik gabe laga eta



AFP agentziarentzako Amir Cohenek egindako argazkian, Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa 'Dolphin' urpeko ontzi berriari ongi etorria egiten 2014an. Alemaniak finantziatu eta ThyssenKrupp konpainiak ekoizturik, horrelako zortzi bederen erosi ditu Israelak. Ustez horietako batzuetatik jaurtitako milisez eraso die armada israeldarrak tropa irandarrei Sirian. Misil konbentzionalez gain bonba atomikoz hornituak ere tira ditzake.

Ekialde Hurbil osoa hondamendian amildu zuten. Iranen eta honen aliatuen kontrakoa izango den hirugarrenak, dio Klarek, aurreko biek baino eremu askoz zabalagoa hartuko du, "gudu zelaia hedatuko da Mediterraneoan Libano eta Israel arteko mugatik hasi eta Hormuzeko itsasarteraino, Pertsiar Golkoa Indiako Ozeanora zabaltzen den ingururaino. Borrokan ari daitezke batetik Iran, Baxhar Al Assaden Siria, Libano-ko Hezbolah eta Irakeko eta Yemeneko miliziak: Bestetik, Israel, Saudi Arabia, AEBak eta Arabiar Emirerri Elkartuak. Siriako borroka kontrolpetik ateraz gero, Errusiako tropak ere sartu litezke".

Zergatik sartu dira AEBak Ekialde Hurbil osoa gerrara hurbiltzen duen eskalada batean? Golkoko aurreko bi gerrek petrolioaren kontrolarekin duten lotura zenbait liburutun aztertuta duen

Klare irakasleak uste du oraingoaren oinarri nagusia kalkulu geopolitikoetan datzala. Amerikarren horko petrolioarekiko menpekotasuna ez da 1990ean bezain larria, harea bituminoso, fracking eta abarren aurrerapenei esker.

Aldiz, aurreko bi gerrek utzi dute, mendebaldeko potentzien estrategia askorentzako, Iran buru duen bloke xiita lehen baino sendoagoa den Ekialde Hurbil bat, Saudi Arabiak gidatu eta Israelarekin aliantza bitxi bezain sendoa josi duen bloke sunitarekin parez pare. Saudi Arabiak Mohammed bin Salman printzearekin esku hartuta, aldi honetan Netanyahu ari da protagonismo handiz jokatzeko, Iran-AEB ituna leher arazten, palestinarrak probokatzen, Irani erasotzen...

Honela amaitu du Klarek bere aurreikuspen iluna: "Inork ezin du segurtatu

botere handiok Ekialde Hurbileko gerra berri bat noiz lehertuko duten, ezta egingo duten ere. Nahastu daitezke bes-telakoak, Koreako afera berriro berotzea Trump eta Kimen artekoa okertzen bada, edo Errusiarekiko krisi berri bat, edo mundu mailako hondoratze ekonomiko berri bat... eta orduan gutxituko litzateke Pertsiar Golkoko liskar geopolitikoaren indarra. Litekeena da ere aipatu liderrotakoren baten inguruko aldaketaren bat, esaterako Netanyahuk galtzen badu agintea poliziak ikertzen duen bere ustelkeriagatik, Trumpek zer egin lezakeen ere batek daki... Hala ere, horrelakoren bat ez gertatzekotan, badirudi irekita dagoela bidea leher dadin gizadiaren ortzi-muga mehatxatzen duen Golkoko Hirugarren Gerra, zalan-tzarik gabe erakutsiko duena infernura-ko bidea dela". ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Oso kutsatuta gaude Espainiako Estatuko kultura krisiarengatik»

Pello Elzaburu

Editore euskaldun (eta periferiko) baten memoriak

Sorginek baserri batzuetan uzten omen zituzten kutxen izena da Pamiela. Kutxa horiek ez ziren inoiz ireki behar ezbeharrik gertatzea nahi ez bazen. Batzuen ustez, seguruena Pamiela argitaletxeko liburuak ere hobe inoiz zabalduko ez balira, haietatik isurtzen diren askatasun aldarriak eta memoria historikoa josteko ideiak jendearentzat oso arriskutsuak izan daitezkeelakoan. Liburuen iraultza isilaz asko daki Pello Elzaburu Pamielako editoreak.

Testua: Reyes Iltxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Iruñean bizi erdia baino gehiago eman duzu, baina gipuzkoarra zara sortzez.

Aita, Juan Elzaburu, nafarra zen, Imotzekoa, Oskoz herrikoa. Oso gaztea zela gurasoak galdu eta Gipuzkoara joan zen izeba batekin bizitzera. Alegiako neska batekin ezkondu eta han jaio ginen gu. 5 urte nituenean Andoainera joan ginen bizitzera eta han ardo biltegia jarri zuen familiak. Nire aita nafartasunaren militantea zen, horregatik txikitan askotan etortzen ginen Nafarroara. Izan ere, Sorrauren eta Arren pasa ditut nire ume garaiko udaldi zoragarrienak.

Gaztaroa Andoainen eman nuen 18 urterekin erbesteko bidea hartu nuen arte. 1977an, Franco hil ondoren, bikotekidea eta biok Iruñera etorri ginen bizitzera. Mexikon egindako bi urteak kenduta, Iruñean egin dut bizitza geroztik.

Militantzia politiko aktibotik nola pasa zinen kulturaren mundura?

Basamortua zen Iruñea euskal kulturaren ikuspegitik eta Bartzelonan ikasten ari zirela elkar ezagutu zuten sei lagunek Auzolan liburu-denda sortzea erabaki zuten. Casa Goñi edo 'Casa Cristo' ezizenez ezagutzen zen janari-dendaren etxabea zabaldu zuten. Handik 3-4 hilabetera hasi nintzen han lanean. Kulturako militanteak ginen, abertzaleak, euskaltzaleak... eta liburu-dendak konspirazio tokiak ziren garai haietan. Han sortu genuen Pamiela aldizkaria, gero 1983an abian jarriko zen argitaletxearen hazia. Hor maitemindu nintzen liburuekin eta geroztik denetik izan naiz: liburu saltzailea hasieran, banatzailea ondoren, eta editorea geroago. Auzolanen liburu banaketarako

Pello Elzaburu Artzamendi

Alegia, 1956

Aktibismo politikotik kulturaren aktibismora pasa zen oso gazte zelarik. Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Jose Angel Irigaray eta beste hainbat sortzaile handiren lagun mina da aspaldi-aspalditik. Duela 41 urte zabaldu eta joan den apirilean ateak itxi zituen Auzolan liburu-dendako sortzaileetako bat da. Aurten 35 urte beteko dituen Pamiela argitaletxeko editorea da.



enpresa txiki bat jarri genuen abian, Yoar izena zuena. Handik gutxira Gipuzkoako beste enpresa batekin elkar-tu eta Bitarte sortu genuen. Azken 25 urtetan Elkar eta Bitarte izan dira euskal liburuen banatzaile nagusiak. Bestalde, 90eko hamarkadan harreman estua izan nuen Erein argitaletxearekin. Han hasi nintzen promotore lana egiten eta ondoren testugintzan murgildu nintzen. Hori jauzi handi bat izan zen euskal liburugintzan. DBH osorako prestatu genuen proiektu baten ardura hartu nuen nik. Hamar urtez ibili nintzen han, baina, aldi berean, Pamielatik oso gertu sentitzen nintzen Txema Aranaz eta Bernardo Atxagaren lagun mina izan naizelako betidanik. Horrela, 2000. urtean Pamielara itzuli nintzen, profesional gisa.

Zein izan da zuen belaunaldiko editoreen ekarpena?

Gu gara euskal editoreen lehen belaunaldi profesionala, hau da, lehen belaunaldia egiten dugunagatik ordaintzen digutena. 70eko hamarkadan sortu ziren Elkar eta Erein adibidez; 80ko hamarkadan Pamiela, Susa eta beste batzuk. Orain erreleboa pasatzea egokitzen zaigu. Oso jende prestatua dator, baina begi-bistakoa da une kritikoa bizitzen ari garela. Alde batetik, iraultza orokor bat dago teknologian. Interneten garaian liburuak bere lekua bilatzen ari da berriro, XX. mendean ikus-entzunezkoak iritsitakoan egin behar izan zuen bezala. Negozioaren aldetik 80ko eta 90eko hamarkadetan loraldia bizi izan zuen liburuak, Franco hil eta gero. Ez zegoen kasik etxe bakar bat ere entziklopediarik ez zuena. Orain paperezko entziklopediak, hiztegiak bezala, desagertu dira. Negozio oso potenteak izan ziren eta egun gelditzen diren egitura nagusiak haietatik sortuak dira, Planeta taldea edo Santillana, esate baterako. Bada beste aldaketa ere sakonagoa: kulturaren krisia. Duela gutxi Elkar Fundazioak atera zituen datuak oso kezagarriak dira. Euskaldunon %23k soilik irakurtzen dute euskarazko literatura. Oso kutsatuta gaude, nire ustetan, Espainiako Estatuko kultura krisiarengatik. Gure egoera ezin da konparatu mundu anglosaxoiarekin edo germanikoarekin. Han kulturak eta literaturak prestigioa daukate, hemen ez.



Irakurketa datuak Espainiako Estatuko batez bestekoak (%59,7) baino hobeak dira Nafarroan (%65,1) eta EAEn (%63,9).

Bai, Madrilekin batera Europako batez bestekora (%70) hurbiltzen gara, baina gure merkatua, euskararena, oso txikia da. Euskarak tentsio militante bat behar du eta ez dugu galdu behar. Horregatik, guk apustu irmoetako bat albumaren [haurrentzako azal gogorreko eta edizio txukuneko ipuin ilustratuak] alde egin dugu. Biharko irakurleak gaur eskaintzen dizkiegun albumekin heziko dira, bai estetikoki bai narrazio moldeari dagokienez ere. Jende asko horretaz ohartu da eta intelektual askok, Bernardo Atxagak adibidez, urteak daramatza esaten kontuz, hemen argi gorria piztuta dagoela. PISA azterketaren emaitzak, esate baterako, oso txarrak izan dira azkenaldi honetan EAEn. Estatuan Nafarroa eta EAE dira osasungintzan eta hezkuntzan gehien inbertitzen dutenak, batez beste, baina itzulera ez da neurri berekoa. Osasungintzan bai bada proportzionaltasuna, baina hezkuntzan ez.

Gazteentzako literatura gustagarria falta da euskaraz?

Eskuz esku pasatzen diren *best-sellerren* fenomenoak ez da gertatzen euskaraz. Literatura, artelan guztiak bezala, oso misteriozkoa da eta ezin da kontrolatu zerk izan den arrakasta handia

Batzuetan obsesioa

“Editorearena lan isila da, mediku eta apaizena bezalakoa. Sekretu asko gorde behar da. Liburuak atetik sartzen da eta lan egin behar dugu hemendik are liburu hobe ateratzeko. Harrigarria da, baina idazlea zenbat eta jantziagoa izan orduan eta hobeki onartzen ditu proposamen guztiak. Idazlearen lana gogorra da, eta nahiko neurotikoa. Batzuk obsesionatu egiten dira beren lanekin”.

Irakurle berririk ez

“Borroka ez dago paperezko liburuaren eta liburu digitalaren artean, baizik eta irakurtzearen eta ez irakurtzearen artean. Liburu digitalak ez du irakurle berririk erakarri, ez du irakurle berririk sortu”.



eta zerk ez. Batzuek uste dute salmenta ikaragarrien atzean marketina baino ez dagoela. Barkatu, baina Harry Potter asko saltzen bada bere arloan oso ona delako da, ez soilik kanpaina itzela antolatu dutelako. Beste kontu bat da funtzionatzen duen produktu bati marketina gehitzea. Agian, editoreek gehiago begiratu beharko genuke zer den irakurleak bilatzen duena. Bestalde, argi dago irakurtzeak esfortzu bat eskatzen duela. Irakurtzeari gustua hartzen zaio gustuko gauzak irakurriz eta denbora eskainiz, eta hori arazo handi bat da gure gizartean, denborarik eza.

Zein izan da Pamielan gehien saldu duen liburua?

Behi euskaldun baten memoriak, 50.000 ale baino gehiagorekin. Ondoren *Soinujolearen semea*, 25.000ekin, *Orhipean* ere oso ona izan da 15.000 ale salduta, eta saiakera lanetan Sarriñandiarren *Moroak gara behelaino artean?* literaturatik kanpoko arrazoietatik ere, 7.000 alerekin.

Zein da editorearen lana?

Gurea lanbide bat baino zerbait gehiago da. Sormena kaosa da eta gu kaos horretan ordena jartzen saiatzen gara. Proposamenak ere egiten ditugu, azken finean gu bitartekari hutsak gara. Niri zeregina itsusiena egitea egokitzen zait,

liburuak saltzea alegia, baina ia denetik egitera ohituta gaude guztiok. Pamielan sei ari gara soldatapean lanean, baina kolaboratzaile asko dugu eta ezinezkoa litzateke gure eguneroko lana aurrera ateratzea haiek gabe: ia musu-truk aritzen direnak zuzenketak egiten, testuak orrazten, aholkulariak, irakurleak... Sortzaileak dira gure aktibo nagusia. Urtero bizpahiru Euskadi Sari jasotzen dituzte gurekin dauden idazleek eta horrek esan nahi du gauza batzuk ongi egiten ari garela. Bernardo Atxaga bezalako idazle bat gurekin izatea, eta gainera laguna aholkulari izatea, oso kontu handia da. Nobel sarirako zerrendetan dagoen euskal idazle bakarra da. Gurean pertsona garrantzitsuak dira esate baterako Jose Angel Irigaray, Asun Garikano eta Ruper Ordorika. Ruperrek euskal kulturaz duen ikuspegi globala ezinbestekoa da guretzat.

Ekimena norena izaten da, gehienetan idazleena?

Gehienetan egileak etortzen dira guregana, baina guk ere idazleei proposatzen diegu zerbait egitea. Iaz, adibidez, *39 idazle nafar*, Nafarroako euskal idazleen antologia plazaratu genuen. Ez da asko saldu, baina editore batek egin behar duen lana dela ikusi genuen. Duela 30 urte bizpahiru izen genituen eta orain 39 bildu ditugu bilduma ho-

netarako. Uste dugu beharrezkoa dela errealtate hori ikusaraztea. Horrelako adibide asko dugu.

Jimeno Juríoren bilduma izan daiteke beste bat?

Bai, noski. Udalbide, Pamiela eta Euskara Kultur Elkargoa elkarrekin ari gara Jimeno Juríoren lan osoaren bilduma 62 liburukitan plazaratzeko. Berriki 49.a atera da, Aratxoako toponimiari buruzkoa. Zer nolako garai ilunetik gatozen gogoratu behar dugu eta Jimeno Jurío bezalako intelektualak nola egon diren erabat alboratuta. Pamiela ahalegin handia egiten ari da memoria historikoa eta Nafarroaren historia ezagutzera emateko. 2012an, konkistaren 500. urteurrenean, berebiziko lana egin zuten ikertzaileek eta gu saiatu ginen ikerlan horiek guztiak bistaratzeko. Pamielaren historian bada lan bat oso garrantzitsua izan dena eta eragin izugarria izan duena: Tomas Urzainki eta Juan Mari Olai-zolaren *La Navarra marítima* saiakera. 1998an atera genuen eta 12.000 ale baino gehiago saldu ditugu. Nafarroaren eta Euskal Herri osoaren begirada aldatu duen liburua da. Nafarroako historiaren irakurketa berria ekarri du. Gaur egun ia inork ez du zalantzan jartzen 1512koa indarrez egindako konkista izan zela, eta hori guztia liburu honen plazaratzearekin hasi zen. Ideia horiek guztiak gizarteratzea da gure zeregina. 40 eta zenbait liburu argitaratu dugu frankismoaz, errepresioaz... eta horiek ere nafarron begirada aldatu dute.

Zenbat liburu plazaratu ditu Pamielak?

1.000 titulu baino gehiago, 1.070 inguru. %45 euskaraz eta %55 erdaraz. Arloka ez da proportzio bera mantentzen. Euskaraz ateratzen ditugun liburu gehienak helduentzako poesia eta narratiba lanak dira hala nola haurrentzako album ilustratuak. Azken hamar urteotan haur literaturan ekarpen garrantzitsua ari gara egiten Etxepare sariaren bidez. Nafarroako toki entitate mordoxkarekin elkarlanean ari gara haurrentzako albumak sortzeko. Bestalde, Kalandraka argitaletxe galiziarrekin lan egiten dugu munduko lanik ederrenak euskarara ekartzeko helburuarekin. Luze egon gara erdarazko fikziozko lanik eman gabe, baina orain berriro hasi gara, hemengo egile batzuekin. Saiakera eta testigantza lanei dagokienez, gehienbat

historia eta memoria historikoarekin lotutako gaiak jorrazten ditugu, %85 erdaraz iristen zaigu eta guk jatorrizko hizkuntzan plazaratzen ditugu.

Juan Zelaia saiakera sariari pilak agortu zaizkio?

Gogoeta prozesuan gaude 2014tik. Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioarekin batera antolatutako sariketa hau 2001ean jarri genuen martxan pentsamendu lan laburrak argitaratzeko asmoz. Filosofia zen ideiak behar direla eztabaida eragiteko eta azken finean, mundua eraldatzeko, baina ikusi genuen ideia horiek lan laburretan ematea hobe zela jende gehiagorengana iristeko. Marxen *Manifestu Komunistak* 50 orri besterik ez zituen eta *jesukristorena* muntatu zuen. Horregatik, 80 orrialdetako muga ezarri genion. Hamahiru edizio egin genituen eta 26 lan argitaratu genituen Upaingo sailean. Izen hori jarri genion hala deitzen zelako Juan Zelaia mezenasen sortetxea. Bera duela bi urte hil zen eta orain bere fundazioarekin harremanetan ari gara. Pena litzateke hau galtzea eta Juan Zelaia beraren memoria ere galtzea.

Zenbateko tiradak egiten dituzue, batez beste?

Poesia eta saio lanetan 400 eta 600 ale artean eta narratiban 800en bueltan.



Gai honetan oso garrantzitsua izan da liburugintzan gertatu den teknologia iraultza isila. Lehen offset sistema bidez inprimatzen zen, kalitate handiz, baina makinak martxan jartzeak berak oso kostu altua zuen. Horregatik ale kopuru handiak egin behar ziren kostuak amortizatzeko. 1.500-2.000 ale egin behar izaten genuen gutxienez. Orain, aldiz, inprimatze sistema digitalarekin tirada txikiak egin daitezke eta bidenabar biltegietan liburuak gordetzeko arazoa ere arintzen da.

Liburu baten truke ordaintzen dugunetik zenbat hartzen du idazleak?

Normalean %10.

Eta gainerakoa?

Idazlearen lana liburu bihurtu eta irakurleen eskuetara iritsi arte 20 bat pertsonak egiten du lan: editoreak,

zuzentzaileak, maketatzaileak, diseinatzaileak, inprentakoak, banatzaileak, saltzaileak... kate horrek kostu batzuk ditu. Banakuntza sareak erdia eramaten du, edizio lanak %25-35, egileak %10 eta geratzen den %5 da irabazi garbia, ale guztiak salduz gero. Editorea izatea ez da pagotxa, baina inori garestia iruditzen bazaio beste aukera bat du: autodiziora jotzea.

Zergatik Pamielak ez du liburu digitalik plazaratzen?

Egia esan, presiorik ez dugulako. Jendeak ez digulako eskatzen. Erakundeek bai, batzuetan, oso estetikoak delako eta prentsaurrekoetan oso ongi gelditzen omen delako halakoak aurkeztea, baina guk beharrik ez dugu ikusten. Duela urte gutxi batzuk esaten zuten 2011n liburu digitalak gailendu eta 2014rako papera desagertuko zela. Orain ikusten da liburu digitala berez ez dela negozioa eta zabalkundea oso mugatua dela, %2koa. Proba batzuk egiten hasi ginen eta konturatu ginen paperezko liburu ederrak egiten badakigula, baina liburu digitalarekin irabazirik ez genuela. Itxaronaldi bat egitea erabaki genuen eta bitartean dakiguna egiten jarraitzea. Urte batzuk joan diren arren, oraindik ez dugu sentitzen horren beharrik. ■



Lidergo globala

Ameriketako Estatu Batuek (AEB) Txinako produktuen inportazioei ipinitako mugak arrabotsa sortu du zergen inguruan. Zurrumbiloaren hasieran, Txinako aluminioaren eta altzairuaren inportazioei arantzelak igoko zizkiela iragarri zuen Donald Trumpek. Txinaren erantzuna AEBetako 128 ondasunen inportazioak zamapetzea izan zen. Ondoren, Washingtonek erabaki zuen Txinatik inportatutako ondasun ugarirentzat muga zergak handitzea. Lehia arriskutsua ireki da inondik ere.

Nolanahi, Txina bi arlotan zorrozta-sunez jokatzeko ari da. Lehenengoz, bere ekonomia garapenak aurrera egin dezan erreforma eta irekitasun politikekin aurrerapausoak ematen jarraitzen du. Urte luzez neurri horiek eraginkorrak izan dira Txinaren ekonomiaren hazkunderako eta gizartearen onurarako (pobrezia tasa nabarmen jaitsi da, adibidez). Horrenbestez, ekialdeko herrialdeak ez du inolako arrazoirik irekitasun estrategia aldatzeko.

Bigarrenez, bi herrien arteko gatazka ekidin ezina da, ekonomia amerikarra merkataritza defizit iraunkorrean murgilduta baitago aspaldian, batez ere Txinarekin duen defizitean. Txinak badaki ezinezkoa dela AEBekin merkataritza posizio desorekatua luzaz mantentzea. Ipar Amerikako inportazioak handitze-ko ahalegina egiten duen arren, hauek ez dute onartzen Txinarako teknologia garaiko ondasunen esportazioak handitzea. Berrikuntzaren ildotik Txinak balio erantsi handiko industriak gara ditzan ekidin nahi dute AEBek.

Areago, merkataritza defizit honen erruduna ez da Txina, dolarraren posizioa baizik. Izan ere, ekonomia merezimendu handirik gabe dolarrek hegemonikoa izaten jarraitzen du nazioarteko moneta sisteman. AEBetako merkataritza defizita murrizteko beharrezkoa litzatekeen dolarraren devaluatzeak



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

AEBetako protekzionismo berriaren helburuekin bat ez datozen kontrako bi eragin kaltegarri aurreikusi daitezke. Batetik, zergak arintzeko helburua duen Trumpek iragarritako zerga erreformak defizit publikoa eta, beraz, merkataritza defizita handituko lituzke. Eta bigarrenez, babes neurriek barne prezioak goratzea ekarriko dutenez, inflazioa mugatzeko interes tasak igotzea bizkortuko du Fed delakoak –AEBetako Banku Zentralak–

bere posizio hegemonikoa kolokan ipiniko luke.

Merkataritza gatazka hau txanponen arteko gatazka da azken buruan. Hain zuzen, Txinak yuanetan (Txinako moneta) izendatutako petrolio gordinaren elkartrukeak plazaratu ditu Shangaiko nazioarteko energiaren Burtsan. Urrats txiki horrek erakusten du Txinak bere txanponaren liberalizazioa eta nazioartekotzea bultzatzen duela, noizbait yuana erreserbarako nazioarteko dibisa bilaka dadin.

Bestalde, AEBetako protekzionismo berriaren helburuekin bat ez datozen kontrako bi eragin kaltegarri aurreikusi daitezke. Batetik, zergak arintzeko helburua duen Trumpek iragarritako zerga erreformak defizit publikoa eta, beraz, merkataritza defizita handituko lituzke. Eta bigarrenez, babes neurriek barne prezioak goratzea ekarriko dutenez, inflazioa mugatzeko interes tasak igotzea bizkortuko du Fed delakoak –AEBetako Banku Zentralak–. Horrenbestez, dagoeneko sumatzen den AEBetako ekonomia ziklo hedakorren atzerako aldaketa bizkortuko litzateke.

Txina eta AEBen arteko balizko merkataritza –eta dibisen– gatazkan bigarrenek lukete gehiago galtzeko. Aurrez aipatutako ekonomia politikako arrazoiak harago lehenagotik datozen egiturazko beste elementu batzuk dira erabakigarriak Pekinen indar posizioa agertzeko. Aspalditik datoz Txinarekiko AEBetako ekonomiaren menpekotasuna erakusten dituzten indizeak, batik bat merkataritza defizit erraldoiarena eta Txinako mailegariet eginiko AEBetako zor izugarriaren erosketak. Washingtongo aurreko gobernu guztiek porrot egin dute ekonomia potentzia aldagetakaren arrisku biziari aurre egiteko neurrietan. Trumpen alde bakarreko ekimen babeslea modu gordinean burutzekotan trantsizio hori bizkortzea izango da emaitza logikoa. ■

Perspektibaz, inoiz baino gehiago

Heldu da. Heldu behar zen momentua heldu. Luzea izan da azkeneko partea, dinamika askoren mugatzaile sekundarioa. Iraganean da, urtu da erakunde zena. Zer berok urtu duen nork bere kontakizuna, intereseko eztabaidagai dudarik ez, baina urtu. Jakin beharko da kudeatzen iragan hori, eta besteak, baina ezin hori orainaldiaren ardatz jarri.

Erakundeak ez direla zertan betirako izan seinale; politikoak ere ez. Helbide izan daitezke, unean unekoak, norabidean asmatu edo ez, baina inoiz ez helburu. Helburuak burujabetza soziala eratzen gauzatzen dira, eta bide horretan era askotako erakundeak helbide behar badira ere, aldian aldikoak, seguruenik bat ere ez da behin betikoa. Eta, beharbada, gaur ez direnak beharko ziren gaur!

Tira! Akabo zooma erakunde zenaren bueltan jartzea, aitzakia edo helduleku. Benetan "denbora berria" zabaldu bada izan dadila "angelu handia" jartzekoa, begirada eta behatoki berrien garaia, gurutze-bide zaharrak utzi eta bestelako bide sozio-politikoak zabaltzekoa. Perspektibaz jokatzeko garaia da, inoiz baino gehiago, helburua egunerokora mugatzen dutenak deseroso utzi arteko perspektiba sozial sinesgarriaz.



Iñaki Antigüedad

EHU-KO IRAKASLEA

Ziklo bat amaitu eta denbora berria hasi, omen. Gizarte zibilari begira kostatzen da egiten zait ziklotan pentsatzea. Mugatzaile hartzen dut ziklo hitza, eta denbora berria ere bai

Pragmatismo eraldatzailea mugatzaileraren aurrean. Gizarte politikoaz nago, gizarte zibilaren zatiak beren kabuz ari direlako, aparte.

Ziklo bat amaitu eta denbora berria hasi, omen. Gizarte zibilari begira kostatzen da egiten zait ziklotan pentsatzea. Mugatzaile hartzen dut ziklo hitza, eta denbora berria ere bai

egiten zait ziklotan pentsatzea. Mugatzaile hartzen dut ziklo hitza, eta denbora berria ere bai. Zentzuzkoagoa zait pentsatzea denbora etengabea dela, eta *continuum* horretan modu eraginkorrean egiten duguna dela burujabetza sozialera hurbiltzen gaituena. Denbora berria baino gehiago, aukera berriak sortu. Eragin, egin baino gehiago, eragin gizarte zibilean; aldaketek behar dituzten baldintzak gauzatzen joateko eragin, perspektibaz eta pragmatismoaz. Hortaz, eragin egin dezaketen eragile sozialak mugitzeko garaia da, direnena eta ez direnena ere, baina mugitzea ez da nahikoa, beharrezkoa bada ere, aldaketak gauzatu behar dira, trantsizioen bidean izan arren.

Gure Esku Dago hor da, gizarte sozialean txalogarri eragiten. Baina datuak datu, zenbat eta herria hiriago izan orduan eta esku-hartzea txikiago izateak pentsarazi behar digu jauzi handiegia dagoela oraindik gizarte zibilaren eta politikoaren artean. Eta hori ez da zikloa konpontzen, perspektibaz eta pragmatismoaz baino, etenik ez denboran. Katalunia gogoan. Iragana izan zenetik gauza asko ikasi daitezke, baina funtsezkoenak orainalditik ikasi behar ditugu eta geroko aldaketen bidean gauzatu. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MARCOS
okindegia

Benetako antzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Ardoa, minagre



Jose Inazio
Basterretxea
IDAZLEA

S arako Joanes Etxeberri, gauzak modu ilunean eta era desegokian azaltzen ibiltzea irudikatzeko, honela idatzi zuen hamazortzigarren mendean: “Arnoa kridatzen dute, eta minagrea saltzen”. Hau da, ardoa aldarrikatu, eta haren orde, ozpina eman.

Segitzen du Etxeberri bere irakurketarekin: “Sugearen propietatea dute (ardo-saltzaile horiek): sugeak xistuz dagoela ausikitzen du”. Hartara, txirulari txerrena, delako suge hori.

Etxeberriren narrasti musikaria kiribildu zitzaidan lepora lehengo batean, enkarguak egiten ari nintzela, erosgaien etiketak irakurtzen nembilean. “Gure” ardoen jatorri-izendapenak leitzen niharduen: *Rioja, Rioja alavesa, Errioxa arabarra, Navarra...* Eta horretan, letagin bik heldu zidaten.

Direnak eta ez direnak omen dauzka salgai merkatuak; baina, nik etxeak nahi etxerako, eta aurkitu ez. “Gure” ardoak ez baitaki euskaraz... Ingeles hutsezko etiketak aurkitu nituen. Gaztelania hutsezkoak. Hizkuntza horien nahasturan oinarritutako elebidun erdaldunak. Baina, euskarazkorik ez.

Edarien etiketatik informazio baliagarria –anekdotikoa baino, argigarria eta beregaina– euskaraz jaso nahi baldin banuen, txakolina eros nezakeen, sagardoa, garagardoa... baina ardo beltz arabarrik ez, ezta ardo gorri nafarrik ere. Non daude? Ala, ez dago?

Lehiakortasunezko norgehiagokaren barruan, merkatu-esparru jakin bat eskuratu nahi dute “gure” ardogileek. Diotenez, leku propio bat nahi dute, berezia eta berezia: haien ardoa den lekukoa delako eta egiten den moduan egiten delako. Araba aipatzen dute batzuek, euren autoretzaren giltzarri. Nafarroa beste batzuek. Baigorri.

Araba, Nafarroa... euskara tanta bat etiketaren baituetan; euskara batere ez etiketa askotan eta askotan. Salbuespenak ba omen dira; baina, salbuespen. Arabako eta Nafarroako ardogle horiek nora begira jarrita dauden ez nuke publikoan esan gurako...

Ekonomia-arrazoi bat da lekukotasunaren errebindikazioa. Logiko, zilegi eta beharrezkoa. Merkatua dute jomugan enpresa txiki eta handi horiek, kutxa erregistratzaileari so bizi baitira. Horretara dator autoretzaren aitortza etiketan atxikitzea. Eskertzekoa da, bestalde, zer nondik datorren azaltzea.

Baina informazio-ohar izateaz gain, etiketak badira, izan, irudi, erakusleiho, seinale, lorratz... ia-ia pasaporte. Nortasun-agiri.

Gauza serioa dira publikoari erakusten zaizkion dokumentuak, administrazioek bermatu behar dituzte bertako adierazpenen egitasuna eta egokitasuna. Eta euskarak, lekuri ez etiketa, irudi, erakusleiho, seinale, lorratz eta nortasun-agiri horietan... Ardo onak galtzeko eta ozpintzeko lehen urratsa, hortxe. ■

Hedabideen manipulazioa: adibide bat



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

P asa den maiatzaren 9an *Diario de Navarra* egunkarian Iruñeko gaztetzetako batek, Errotxapea auzokoak, orrialde oso bat hartu zuen: “*Vómitos, ruidos y hurtos, el colmo vecinal por el gaztetxe*”.

Artikulua irakurtzen hasi eta auzokideak ez dira antolatu, ez da inolako prentsaurreko edo adierazpenik egon, ez istilurik. Berri hau argitaratzeko ez dago motibazio agerikorik. Kazetaria auzora hurbildu eta galdera batzuk egin ditu.

Bat, bi, hiru, lau, bost auzokideren testigantzak. Batek eraikinen utzikeria egoeraz, beste batek: “*Incluso drogas*”, hirugarrenak: “*Mi abuela está agobiada*”; gero: “*Pedimos su desalojo*” eta azken

bat zarataz kexu. Okaden eta zikintasunaren arrastorik ez. Lapurretei buruz, “*pequeños hurtos en los balcones*”. Igual lorontzi bat hartu du norbaitek? Egia ere ez da izango. Gertaera “hain larri” hauek idatzera oso sentsazionalistaz, oinarri gabeko baieztapenez, handizkatze eta ahoberokeriez josita daude. Eta lotsarik ez. Azalera, argazki eta guzti: “*Vecinos de la Rochapea contra el gaztetxe*”.

Hasia da UPN hauteskunde aurre-kanpaina prestatzen, okupazioa eta gaztetzak hautatu ditu euren armen jomuga. Bagenekien. Badakigu ere hedabideen papera zein den. Baina mesedez, duintasun apur bat, gutxienez. ■

Hil ondorengo mamuak

ETAk, bere kabuz, hirurogei urteko ibilbideari amaiera eman dio eta oinordeko frankistek, edo gerra zikinak bultzatu zituztenek ez bezala, eragindako kalteei buruzko autokritika egin du. Alabaina, nago, ETaren mamua, *Cid Campeador*-ena bezala, zenbait esparrutan –gerra dialektikoaren zelaian, besteak beste– erabilia izango dela, etekina ateratzeko asmoz, hain zuzen ere.

Literaturan, esate baterako. Aspaldiko salaketa da Euskal Gatazkari buruz gutxi eta ahots apalez hitz egin dugula euskal idazleok, baita oso modu lotsatitan idatzi ere. Lelo hori gezur borobila izan arren, bozgorailu interesatuen ahotik mila aldiz errepikatu ondoren, topiko bihurtu da.

Izan ere, luzea zen *Zu zeu* agerkari digitalean “gatazka” delakoaren inguruan argitaratutako zerrenda, eta luzeago egin da. Hirurogei urtetik gorakoek –eta askoz gazteagoek ere–, alde edo moldez, gatazkaren zurrumbiloan bizi izan dugun garaia horren isla besterik ez da idatzitako guztia, literatura izan, autobiografiak izan, edo bestelako idatzi motak izan. Bestaldetik, non dago nahiko, gutxi edo gehiegi dela neur dezakeen marra?

Horrez gain, azala behar da euskal idazleok subentzionatuak garela esateko –Fernando Aranburuk esana–, aldi berean komunikabide nagusien eta bterearen mesedea jaso duen obra baten egilea izanda.

Badago zer esan etikaren alorrean.

Estatuak bere egiten du indarkeria erabiltzeko zilegitasuna, berak bakarrik baimendu dezakeelarik armak nork erabil, izan indarkeria pribatua (zaintza pribatua) edo hiritarra (milizia), baldin eta ordena burgesa eta jabego pribatua babesteko bada. Aldiz, indarra



Joxe Iriarte, *Bikila*

ALTERNATIBAKO KIDEA ETA IDAZLEA

ETAk bihotzak irabazi eta elkartasuna erakarri ordez, bazirudien jendearen nazka eta asperdura bereganatzea zuela helburu; horrek, gizartean negoziazioaren aldeko giroa sortuko zuelakoan. Okerrena, guretzat, deriba onartezin harekin ezker abertzaleari ere izugarritzko kalte egin ziola, eta geroz eta argiagoa izan zen, batez ere “sufrimenduaren sozializazioa” aldarrikatu edo teorizatu zutenean

erreboltaria bada, erabiltzeko moduan erabiltzen duelarik, zanpatzen saiatuko da, izan erakunde armatua, milizia edo pertsona bakana.

Ez dago munduan estaturik, ez sistema ekonomikorik, indarkeriari uko egin

dionik. Are gehiago, estatu guztiak eta sistema guztiak, demokratikoenak ere, biolentziaren bitartez sortu dira eta horrela iraun ahal izan dute, bai Ameriketako Estatu Batuak, bai Frantziako Estatu-Nazioak, baita gaur egun desgertuta dauden Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunak ere (SESb). Zer esanik ez, Aberriaren batasunaren zaintza armadaren eskuetan uzten duen Espainiako Konstituzioak.

Kontua da, beraz, zer-nolako biolentzia erabiltzen den eta zein alorretara mugatzen den. Dena ez baita zilegi ezta onuragarria, etika eta estrategia emantzipatzaile baten ikuspegitik.

ETArekiko gure azterketa kritikoa.

ETA jaio zenetik bere jarduera amaitutzat eman duen arte, aldaketa estratejiko nabarmenak gauzatu dira, hori ezin uka. Hastapeneko ETAk, helburuak eta bideak hala nola berauek uztartzeari buruzko zalantzak eta balantzak bazituen. Alabaina, denboraren joan-etorrian, ETaren jarduera armatua geroz eta militaristagoa bihurtu zen, estrategia politikoaren kalterako. Bihotzak irabazi eta elkartasuna erakarri ordez, bazirudien jendearen nazka eta asperdura bereganatzea zuela helburu; horrek, gizartean negoziazioaren aldeko giroa sortuko zuelakoan. Okerrena, guretzat, deriba onartezin harekin ezker abertzaleari ere izugarritzko kalte egin ziola, eta geroz eta argiagoa izan zen, batez ere “sufrimenduaren sozializazioa” aldarrikatu edo teorizatu zutenean.

Hori horrela azaltzea, ez zen izan ezkerreko kritikoentzat gozoa. Izan ere, nola bereizi ETaren jardueratik, beste asko ez bezala (EPK, EE) estatua eta sistemaren esparruan harrapatu izan gabe. Hor zegoen gakoak.

Nola egin aurrera asmatu beharko da, baina, urte luze horietan ikasitakoaz hitz egin gabe, zaila iruditzen zait. ■



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ABARASKA PROIEKTUA

Etxebizitza, auzoaren eragile sozial

Erosi, alokatu eta okupaturen artean, etxebizitzaren arazoari erantzun berri bat ari dira entseatzen Donostiako Abaraska proiektuko kideak. Teilatu batetik harago, ingurua eraldatu eta beste bizi eredu baten oinarria izan daitekeelako jarri dute martxan etxebizitza kooperatiboaren proiektua. Definizio fasea behin igarota, bizitoki izango duten espazioa lortu eta errealitatera salto egiteko aliantzak josten dabilta.



Xalba Ramirez

@xalbaram

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Espainiako Sustapen Ministerioak 2017an argitaratutako datuen arabera, Donostiako etxebizitzak dira estatuko garestienak. Iazko bigarren hiruhilekoan %9,7 hazi zen prezioa aurreko urteko sasoi berarekin alderatuz, metro koadroa 3.436,3 euroraino igoz.

Hego Euskal Herriko gainontzeko hiriburuei dagokienez Iruñeko etxebizitzaren prezioa metro koadroko 1.650,3 euroan dago; Gasteizkoa 1.881,1; eta Bilbokoa 2.268,5.

Higiezinaren burbuilaren eztandak hasieran prezioen beherakada ekarri zuen arren, orain gora eta gora ari dira, turismoari lotutako espekulazioa lagun. Langabezia jaitsi egin da, baina langile behartsuen kopurua igo. Eta etxebizitza eskubidea izatea inoiz baino zailagoa da, ezinezkoa hainbat hiri eta auzotan.

Errealitate horri aurre egiteko sortu da Abaraska proiektua, Donostian etxebizitza kooperatibo bat sortzea helburu. Atzizkiak badu garrantzia Maite Leturia



Nabarroa, Ana Revuelta Andrés eta Nahiko Arraiza Eguillor-entzat: etxebizitza kooperatiba batetik harago doa, baina ez da soilik etxe kolaboratiboa. “Bi hitzak nahastuta, gustatzen zaigun konzeptua sortu dugu”.

Duela bi ikasturte sortu zen proiektua. M-etxea kolektiboak Loiolako Erriberetan (Donostia) duen lokalean hitzaldia eskaini zuen Bartzelonako Sants auzoko La Col kooperatibako Carles Baiges-ek; martxan zuten La Borda proiektu-



tua aurkeztu zuen bertan, eta Arraiza eta beste lau lagun Donostian horrelako zerbait egin behar zutela iritzita biltzen hasi ziren.

“Bartzelonan posible bada, Donostian ere. Hortik abiatu ginen, eta ikusi genuen baietz, bai lege aldetik, baita espazio aldetik ere, Donostian bideragarria dela mota horretako proiektua. Inguruan ideia zabaltzen hasi ginen eta azkar batean 30 laguneko taldea sortu genuen”, dio Arraizak. Kaxilda liburu-dendan

2017ko irailean egindako aurkezpenean, taldea egonkortu eta lantaldeak sortzen hasi ziren. Leturiarentzat, oraingo prozesua da garrantzitsua, eraikina lortu bitarteko eztabaida eta definizio guztiak ematea, alegia. “Taldea da guztiaren oinarria, eta orain hori ari gara lantzen. Masa ez badago ondo, eta masa gu gara, proiektuak ezin du funtzionatu”.

Baina zer da etxebizitza kooperatibo bat? Esan bezala, izaera juridikotik harago joan nahi dute, eta bizi eredua

jarri erdigunean: “Antolamendu eta ku-deaketa kooperatiboa bultzatzen dugu, bai gure etorkizuneko bizimoduari dagokionez, baita helburu hau lortzeko egiteko dugun bidean zehar ere”.

Etxebizitza eragile izatea ere nahi dute, eta horretarako hainbat balioen arabera eztabaidatu eta eraikitzen ari dira proiektua. Interneten eskuragarri duten *ennealogo*-aren arabera (9 puntuko dekalogo) bizi eredu inklusiboa, belaunaldiartekoa, feminista, ekologis-



ta, jasagarria, soziala eta euskalduna bultzatzen duen komunitate gisa definitzen dute proiektua. Azken finean, “gure larruan bizi dugun etxebizitzaren arazoari Donostiako hirigunean aldaketa erreal bat planteatu, bultzatu eta aldarrikatzeko kolektiboa” direla argi utzi dute.

Revueltaren ustez “Donostian etxebizitza arazo bihurtu da urteetako espekulazioagatik, turismoagatik eta lanpostu prekarioengatik. Baina gainera, behin honaino iritsita, Mendebaldeko gizartea egungo hirietan nola bizi garen kezkatzen gaitu. Bizilagunekin ez dugu harremanik, badakigulako edozein unetan utzi beharko dugula etxea”.

Leturiak ere argi du “bizilagunak baino, bizi-lagunak nahi ditugu, komunitate baten parte izan nahi dugu. Beraz, proiektu honetatik interesgarria iruditzen zaigu era kolektiboan eraikitzea bai, baina era kolektiboan bizi nahi izatea. Horregatik, erabaki nahi dugu guztia taldean”.

Illo horri segituz, arkitektura zurruna eta biguna bereizten dituzte Abaraskako kideek. Arkitektura zurrunari dagozkio eraikinen gaineko eztabaidak: nolakoa izango den, zein material erabiliko diren edo espazioak nola banatuko diren. Arkitektura bigunari dagokionean kolektibotasunari zein espazio eman nahi zaizkion, auzoarentzako zein gune nahi diren edo zer bizikidetzat mota eraman nahi den hausnartzen dute.

Bi astean behin biltzen dira M-Etxea kolektiboak Loiolako Erriberetan duen lokalean.

Duela bi ikasturte toki horretan Bartzelonako La Col kooperatibako kide batek hitzaldia eskaini zuen Kataluniako hirian martxan zuten La Borda eraikinaz; hori izan zen Donostiako proiektuaren abiaburu.

» **ANA REVUELTA ANDRÉS (ABARASKAKO KIDEA):**
“Donostian etxebizitza arazo bihurtu da urteetako espekulazioagatik, turismoagatik eta lanpostu prekarioengatik. Baina gainera, Mendebaldeko gizartea egungo hirietan nola bizi den kezkatzen gaitu; bizilagunekin ez dugu harremanik”



Arraizaren esanetan, “gure buruak indartzeko prozesua izan behar da. Eraikin bat eraikitzeke gai bagara sozialki indar handia garatzen dugu, eta ingurunea eraldatzeko aukera handiagoa daukagu”. “Etxebizitza lortuko ez bagenu ere –gehitu du Leturiak– mugimendu bezala mantentzea beharrezkoa da”.

La Borda eredu

Uda baino lehen eraikita espero dute La Borda etxe kooperatiba. Bartzelonako Sants auzoko proiektu aitzindari hau 2016an hasi ziren eraikitzen, auzoko behar komun batetik abiatuta, bertako sare komunitarioa lagun. La Col kooperatibaren dinamizazioa, Can Battló espazio sozialak eskaintzen zuen logistika eta Coop57ren finantziazioa izan dira proiektuaren funtsa.

Eraikitzen ari diren etxearen espazio komunitarioak lehen solairuan izango dira: 40 m²-ko sukalde-jantokia, garbigailu gela, erabilera anitzeko gela eta osasun eta zaintza gelak izango ditu.

Bartzelonako Udalak 75 urterako lagatako lur publikoetan egongo da eraikina –babes ofizialeko etxebizitzek dituzten baldintza berdinetan– gogorarazi digu Leturiak-. Bazkideek eraikinen erabilera eskubidea izateko 18.500 euroko ekarpena egin behar dute eta ondoren hileko kuota bat pagatzen da, 450 euro ingurukoa. Proiektutik atera nahi duenak hasieran jarritakoa berreskuratzeko aukera du.



Hiru milioi euro inguru balio du obrak. %20 erabiltzaileek jarri dute, %60 Coop57k emandako kreditu eta kooperatibako parte-hartze tituluak dira, eta gainontzekoa diru-laguntzak, norbanakoen eta ekonomia sozialeko erakundeek ekarpenak izan dira.

Euskal Herrian, erabilera lagapenaren ereduaz eguna da babes ofizialetako etxebizitzak eraikitzeko. Danimarka, Uruguai eta antzeko herrietan etxebizitza kooperatibentzat ere erabiltzen dute sistema. Danimarkan *Andel* eredu gisa ezagutzen denaren 125.000 etxebizitza kooperatiba daude, 1911tik gaur egun arte eraikiak. Uruguain berriz, Elkar Laguntza bidezko Etxebizitza Kooperatiben Federazioaren (FUCVAM) barruan daude 20.000 etxebizitza, 3 milioi laguneko herrian.

Arkitektura zurruna eta biguna bereizten dituzte Abaraskako kideek. Zurrunari dagozkio eraikinaren gaineko eztabaidak, eta bigunarekin hausnartzen dute kolektibotasunari zer espazio eman nahi dioten, auzoarentzat zein gune izango den edo zer bizikidetzat mota eraman nahi luketen.

Bizilagunak kooperatibako bazkideak dira, eta bizitza osoan bizi daitezke bertan. Ereduaren ezaugarri nagusia da, espekulatzeak aukera blokeatzen duela: bazkideek ezin dute saldu ez alokatu, asanbladak jarritako prezioen gainetik.

Arrazak ohartarazi du Danimarkan eskuin muturraren gorakadarekin legea liberalizatu egin dela, hala, zenbait kasutan bizilagun guztiek akzioak garestitzearen alde egin dute: "Berrikusi

egin behar den arren, hala ere oraingoz eredu hau da interesgarriena guretzat".

Zaintza erdigunean

La Borda proiektuaren ezaugarri nagusietako bat izan da zaintza etxebizitza ereduaren erdigunean mantentzea. Zaintza ez dutelako ulertzen norberak bere etxean egiteko –eta gehienetan emakumearengan delegatu– zeregin bezala, baizik eta komunitate osoak erantzun beharreko erronka gisa.

Hori bermatu ahal izateko, sorreratik bertatik La Col kooperatibak garatutako parte-hartze prozesuan hitza eman diote identitate eta familia eredu askori, denen beharren arabera izan dadin. Haur eta zaharrenek beren ikuspegi zehatza gehitu ahal izan dute, espazioak guztien beharrei erantzun diezaien.


W W W . E L S A L T O D I A R I O . C O M

HORDAGO
EL SALTU

Loturarik gabeko
komunikabidea

**Belaunaldi prekario batendako
jabego kolektiboko komunikabidea**

Harpidetuz zaituzte



Abaraskan taldekide gehienek antzeko ezaugarriak dituzte. Badira haurrak dituzten familiak, baina gehienak 25-40 urte bitarteko gazteak dira, ikasketa maila altukoak eta euskaldunak gehienak. “Azken finean, lagunak eta lagunen lagunak gara taldekoak, eta garrantzitsua da lehen fasean horrela izatea, elkarrekin egoteko gogo handia behar da eta hainbeste lan egiteko”, dio Revueltak. “Baina egia da heterogeneitatea garrantzitsua dela, eta hori presente dugu eztabaidetan, ez dugu irla moduko bat izan nahi”.

Honelako proiektuak baztertzailak direla eta oso kritiko agertu zen Bartzelonako CUP-Capgire alderdia Bartzelonako Udalarekin, polemika itzela sortuz: “Barrera ekonomiko ikusezin bat sortzen du etxebizitza eskubidea lortzeko”, zioen erakunde antikapitalistak. Ados dago hein batean Arraiza: “Tamalez, planteatzen ari garen ereduak ez da jende guztiarentzat bideragarria. Etxebizitza modu merkeagoan eskuratzeko bide bat den arren ezin da alternatiba bakarra izan”.

Uda baino lehenago amaituta izango dute Bartzelonako Sants auzoan eraikitzen ari diren La Borda etxe kooperatiba. Egurrez egina dago eta espazio komunitarioak izango ditu: 40 metro koadroko sukalde-jantokia, garbigailu gela, erabilera anitzeko aretoa eta osasun eta zaintza gelak.

LA COL KOOPERATIBA

» **MAITE LETURIA NABARROA (ABARASKAKO KIDEA):**
“Beti dugu presente eragile sozial bat izango garela, auzokideekin harremana edukiko duen agentea. Auzoko ehun komunitarioarekin elkarlan estua nahi dugu, eta horretan oinarrituko dira gure erabaki asko”

Erreterian ere bide berrien bila

Erreteriarako Udalak (EH Bildu) gazteekin egindako parte-hartze prozesu batean emantzipazioa agertu zen herriko kezka nagusi. Itziar Ostolaza gazteria zinegotziaren arabera “gazte gutxi erosi edo alokatu dezake etxebizitza bat herrian, eta horregatik beste eredu bat jarri nahi izan dugu mahai gainean, alokairua zein erosketa gaindituko dituen”.

2018ko udazkenean eman ahal izango dute izena Ooreretako 26 gazteek udalerriko lehen etxebizitza komunitarioan bizi ahal izateko. Alokairu sozialekin gertatu ez bezala, soldataren %15 ordaindu beharko dute gazteek “egungo soldata prekarioekin %30 ordainduz gero, bizitzeko adina ere ez luke izango gazte askok”, dio zinegotziak.

Bost bilera eta jardunalditan izan diren 68 gazteen iritziekin finkatu dira proiektuaren oinarriak. Erreterian erroldatutako 18 eta 30 urte bitarteko gazteei irekita egongo da, hiru urtez izango dute bertan bizitzeko eskubidea



Euskal Herrian emantzipaziorako alternatibak sortzen ari dira apurka. Errenteriako etxebizitza komunitarioaren proiektua udalak sustatu du eta prozesu parte-hartzaile baten bidez definitu dute. Udazkenetik aurrera eman ahal izango dute izena 18 eta 30 urte bitarteko gazteek bertan bizi ahal izateko.

ERRENTERIAKO UDALA

eta konpromiso soziala erakutsi behar-ko dute jardueren antolaketan eta auzo-lanean –hilean gutxienez 9 ordu–, besteak beste.

Eraikina obretan dago jada eta zazpi etxebizitza izango ditu gazte guztientzat. “Espazio pribatu ahalik eta gutxien izaten saiatu gara, komunitarioen mesedetan. Azken finean behar pertsonalak bai, baina behar sozialak ditugu guztiok, eta bizi ereduak horri erantzun behar dio”.

Ostolazarentzat “esperimentu polita” da, hazitegi moduko bat: “Diruaz gain, gazteek komunitateari eskaintzen dioten lana izango da oinarri garrantzitsu bat, eta horrek herrian sortzen diren harreman sozialak eraldatzea ekar dezake. Etxebizitza komunitarioan landatzen den hazia beste nonbait ernatu daiteke”.

Auzoarekin elkarlanean


La Bordako ereduarekin alderatuta, Abaraskako kideek badute kezka bat: “Sants auzoan errotuta sortu zen proiektu hura, eta guk oraindik ez dugu espaziorik”. Leturiaren arabera “beti presente dugu eragile sozial bat izango garela, auzokideekin harremana edukiko duen agentea izango garela. Beraz, auzoa erabakitzen dugunean bertako ehun komunitarioarekin elkarlan estua eraiki nahi dugu, eta horretan oinarrituko dira gure erabaki asko”.

Horretarako eragile eta erakundeekin elkarlana sustatzen ari dira: “Hainbat lantalde sortu dugu, tartean kanpo harremanetarakoa, eta eragile sozial eta ordezkari instituzionalekin ari gara biltzen. Orain arte ez digu inork ezezkorik eman, baina ez dakigu noraino konprometitu daitezkeen”, dio Revueltak.

“Eskatzen ari garena babes ofizialeko etxebizitzetara eskaintzen zaien bera da. Lagapena 75 urtez lehiaketa publiko bidez. Lehiaketa horietan ordea, irizpide ekonomikoez gain, irizpide sozialak ere hartu beharko lirateke kontuan”.

Argi dute aurretik lan handia geratzen dela. Erdi umorez erdi serio dio Leturiak: “Jende askok esaten digu: ‘Etxea eraikitzen duzuenean deitu!’ Ba ez. Hau ez da zerbitzu kooperatiba bat. Lana egin beharko dugu, eta nahi dugu horren alde borrokatu. Eta lortzen dugunean, denon garaipena delako egongo da denontzat irekia. Baina bitartean lan handia dugu aurretik”.

Etxebizitza ez da arazo indibiduala, eta ez diote bakartasunetik aurre egin nahi. Kolektiboki erantzun nahi duenak badu aukera: bi astetik behin egiten dituzte bilerak. ■



ZAPRAN GAGOZ

euskal eskola publikoaren 27. jaia lekeition ekainak3

ehi
gurasoen elkartea

euskaleskolapublikoarenjaia.eus

“Mendian ere Euskaraz”

Zortzi mendi talde eta euskara elkarte baten proposamena

“Mendian ere euskaraz” egitasmoa aurkeztu dute hainbat mendi taldek maiatzaren 17an, Donostian. Mendian ere euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatzea dute helburu nagusia, baita arnagune hori euskaldun jendeari agerraraztea ere. Horretarako, mendi irteera bateratua antolatu dute maiatzaren 27rako.



Ainhoa Bretos

@ob_ainhoa

2017ko martxoan Mendian Euskaraz izeneko taldea sortu zuten hainbat mendizalek, mendien ondarea euskaraz eza-gutu eta euskaltzale guztiei mendian euskaraz bizitzeko eta gozatzeko aukera eskaintzeko. Beste batzuen artean, euskaraz bizi diren edo bizi nahi duten Euskal Herriko, tokian tokiko, mendizale taldeekin harremanak sendotzeko helburua ezarri zuten kideek, eta horri eutsi nahi izan diote egitasmoaren bidez.

Taldeko kidea den Edu Zabalak esandakoaren arabera, udazkenean jarri zuten martxan proiektua, eta apurka-apurka gauzatu dute: “Zazpi hilabete inguru iraun dituen prozesua burutu dugu talde euskaldunekin harremanak egiteko, bereziki sare sozialen bidez, baina bide asko erabili ditugu informazioa helarazteko”.

Prozesuari esker, zehazki, zortzi mendi talde eta euskara elkarte bat batu dira dagoeneko egitasmoa: Mendian Euskaraz (Euskal Herria), Marimendi (Euskal Herria), Etzandarri (Lemoiz), Blagan (Hondarribia), Añorga K.K.E (Donostia-Añorga), Mendiak eta Herriak (Euskal Herria), GEUrekin mendira (Gasteiz), Platerotarrak (Donostia-Antigua),

eta Begiraleak Kultur Elkarte (Donibane Lohizune).

Azaldu dutenez, funtsezkoa da gero eta euskalgune gehiago izatea, “euskarak arnaguneak behar dituelako”. Hori xe bera da egitasmoaren bitartez eskaini nahi dietena euskaltzale guztiei.

Euskararen arnaguneak

Mendian ere Euskaraz egitasmoak duen garrantziaz hitz egiteko orduan, bereziki ideietatik ekintzetara jauzi egitea dela azpimarratu du Zabalak: “Mendian talde asko dabil eta bakoitzak egiten du bere hizkuntza hautua, baina egitasmoaren bitartez, gutxienez, aldaba joko diegu mendizale euskaldunen kontzientziei”. Horren eraginez, mendian euskararen presentzia areagotzeko ahalegin berezi bat egingo dute, agian, mendizale euskaldun horiek, Zabalaren iritziz.

Horrez gain, bistaratu eta agerian utzi nahi dute “beharbada askok planteatu ere egin ez dutena”. Izan ere, ustez sendoak diren arnaguneak benetan behar bezain sendoak ez direla aipatu du mendizaleak. Hori dela eta, gogoeta egitera eta mendian euskaraz bizitzera gonbidatu ditu euskaltzale sentitzen diren de-

nak: “Azken batean, mendia eta euskara gure ondareak dira eta eutsi egin behar diegu. Ez badiegu eusten badakigu zein den etorkizuna, zoritxarrez”.

Egitasmoari hasiera emateko, mendi irteera bateratua antolatu dute maiatzaren 27rako. Nafarroan elkartuko dira aipatutako zortzi mendi taldeak, euskara elkarte eta interesa duten euskaltzale edo mendizaleak.

Euskal Herriko erdigune geografikora irteera

Euskara hutsean egingo dute maiatzaren 27ko mendi irteera, Lizarragako bentan hasiko da, goizeko bederatzieta, eta Euskal Herriko erdigune geografikoa izango du helburu, Andia mendilerroan. Ibilbideak 22 kilometroko luzera du, eta 200 metroko desnibela. Eguraldi txarra balego, bestalde, beste ibilbide laburrago bat egingo lukete: abiapuntu beretik San Adrian ermitaraino, guztira zortzi kilometroko luzera eta 84 metroko desnibelarekin. Mendizale eta euskaltzale guztiak gonbidatu dituzte ekimen horretara, eta banaka zein taldetan apuntatu daitezkeela azaldu dute.



Egitasmoa, bestalde, ez da irteera horrekin amaituko. Zabalak esandakoaren arabera, lehendabizi ikusi eta baloratuko dute nolako erantzuna izan duen. Dena dela, urtero errepikatzeke asmoa dute, maiatzeko azken igandean: “Mantendu nahi dugu egutegian data hori euskaltzale eta mendizaleak elkar daitezzen, non eta Nafarroan, Euskal Herriko bihotzean”.

Horrez gain, ateak zabalik dituztela adierazi du: “Hau prozesu bat da, espero dugu komunikabideen oihartzunaren bidez talde eta norbanako gehiagorengana iristea. Beraz, ez dugu aterik ixten inolaz ere”. Beraz, azaldu dute maiatzaren 27a ez dela egun isolatua izango, baizik eta mendizale euskaldun guztientzako deia.

Talde guztiek batera “ortzadar zabala” islatzen dutela esan dute, bai geografikoki zein beste esparrutan: “Euskal Herrikoa eta nazioartekoa, emakumeena, gazteena eta umeena, eta bukatzeko, maila lokalean aritzen direnena”. Hortaz, bultzatzaileen aniztasuna zabala eta aberatsa dela azaldu dute, eta harremanetan jarraituko dutela mendia eta euskara uztartu nahi duten talde eta norbanakoekin. ■

Mendian Euskaraz taldea 2017ko martxoan sortu zuten eta orduz geroztik mendiz mendi ibili dira. Argazkia taldeak berak utzitakoa da eta aurtien Aizkorriko Urbian ateratakoa.

GASTEIZTARRAK GEU-REKIN MENDIRA

2015eko otsailean hogeitau urte bete zituen GEUrekin mendirak. “Orduan, 40 urteko emakume bi ginen Maite Mendiburu eta biok, eta koskortuak genituen seme-alabak. Haiek bakarrik ibiltzen eta irteten hasita zeuden eta, beraz, tarte libreak ere bagenituen guk –dela ostiral arratsaldean nahiz larunbat goiza, esaterako–, eta mendirako baliatzen hasi ginen tarte horiek”, dio Bego Ariznabarretak. Eta, behin halako, mendi irteera horietako batean, Maite Mendiburuk Bego Ariznabarretari: “Euskaldunetz osatutako mendi taldea egin beharko genuke”. Maiteren ideia izan zen. Nik baietz esan nion, baina besterik gabe. Ordurako, dena den, Gasteizko GEU euskara elkarteke kide ginen biok eta, hortaz, egun batean, *Geu* aldizkarian iragarkia jarriko zuela esan zidan Maitek. Eta esan eta egin: ‘Halako igandean, goizeko 9:00etan, Txapela taberna aurrean, irteera

Ezkibelerat. Ez genekien inor etorriko zen ere, baina 36 lagun bildu ginen!”.

Maite Mendibururen ideari jarraitu zitzaion Bego Ariznabarretak, konplize egin ziren lehen ere adiskide eta lagun zirenak, eta handik laster, jendea deitu zuten bilera batera: “Eta talde izaera gorpuztu genuen. Jende mugimendua izan da harrezkero, jakina, batzuk gaizkitu dira, beste batzuek bestelako bideak hartu dituzte, baina talde izaera hori eutsi diogu beti”. GEU elkartearen baitako da GEUrekin mendira asmoa sortze beretik: “Atal berezi bat osatu genuen elkartearen barruan eta horrela jarraitzen dugu. Elkarrearen jardura izan gara sortu ginenetik, eta horrela izan nahi dugu luzaro”.

- Testu zati hau 2015eko irailaren 27ko ARGIA astekaritik hartua izan da. Egilea: Miel Anjel Elustondo.

Lazkaoko Enpaundi baserria

Ofizio zaharrak berreskuratzen

Euskal Herriko beste hainbat lekutan gertatu den moduan, etxeek hartu dituzte Lazkaon lehenago soro eta baratze ziren lurak. Asfaltoak, zementuak, kultura hiritarrak, Enpaundi baserria inguratu dute. Baina Garin sendiaren hormen artean, oraindik, baserriak ez du izana galdu. Herriari bizkar eman gabe, baserriaren kultura taupaka ari da Enpaundin. Lazkaon Basherri Eguna egiten denetik, urtero langintza bat berreskuratzen dute, eta baserriko eguneroko lanetarako erabili. Esku trebeen eta sormen handiaren emaitza dira.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Iñaki Sanz-Azkue

Iraila amaieran, urtero-urtero, baserriari loturiko ofizio zahar bat erakusten dute garindarrek Lazkaoko Basherri Egunean. Baserriarekiko duten maitasunak bultzatuta eta arbasoengandik jaso duten ondarea erakutsi nahian, Lazkaoko plaza bihurtu dute euren erakustoki, eta Enpaundi, dagoeneko galdu diren ofizioak berreskuratzeko “laborategi” txikia.

Julio Caro Barojak berak, baita historian zehar aritutako hainbat euskal etnografo ezagunek ere jaso izan dituzte ofizio hauei buruzkoak; eta idatzi dituzte liburuak eta txostenak. Enpaundin, ordea, prozesua zerotik hasten da: baserrian ikusitakoa, aiton-amonei entzundakoa oinarri hartuta, informazioa eta lehengaiak bilatzen dituzte, eta euren afizioa ikusgarri egiten dute. Ez da paperik; ez da boligraforik; sortu egiten dute. Egurra, harria, metala landuz, ofizio bati zegozkion pausu eta erreminta guztiak sortzen edo berregiten dituzte. Isilpean gordetako artisauak dira.

Arian-arian xehetzen da burdina

Eta halaxe, Enpaundi baserriko Juan Joxe Garin, bere emazte María Elena eta arreba Mari Carmenen laguntzarekin, arian-arian, urtez urte, eguneroko lanarekin joan da hainbat ofizio, erreminta zahar eta ohitura berreskuratzen. Hauek egiteko denbora nondik ateratzen duten galdetuta, eurek garbi dute erantzuna: “Denbora denean aritu behar”.

2012an lehendabiziko Basherri Eguna ospatu zenean egin zuten aurreneko erakusketa. Orduan, artoa aletu eta txikitze makinak erakutsi zituzten. “Txikitan artoa ereiten genuen baserrian, eta aita bazituen horiek aletu eta txikitze makinak”, esan digu Juan Joxek. “Guk bagenekien nolakoak ziren makina horiek, eta 2012rako berreskuratu eta hobetu egin genituen. Egurra ere gure lursaileko arbola batetik atera eta hori erabili genuen zaharberritzeko. Erabiltzen dugun egur guztia baserri ingurutik hartutakoa da; geurea”. Enpaundiko erriberan oraindik ere ikus daitez-





ke arto-sailak. Artaburua hartu, eta gure aurrean egin du froga. Artaburua osorik sartu du artoa aletzeko makinan, eta eskuzko bidera bati eman ostean, aleak alde batetik eta artaburu zuritua bestetik atera dira. "Arto ale hauek artoa txikitzeko makinan sartzen ditugu, eta txiki-txiki eginda ateratzen dira. Ondoren oiloei jaten emateko erabiltzen ditugu. Berreskuratu ez ezik, erabili ere egiten dugu makina zaharra!"

2013an haria egiteko prozesua hasieratik bukaeraino egin zuten. "Aitonari ikusitakoarekin, eta inguruko jendea-ri eta artzain helduenei galdezka, urte osoa aritu ginen ikasten. Haria egiteko kardak berreskuratu genituen eta egurrezko kabilak egin genituen". Artiletik galtzerdiak sortzerainoko prozesua egin zuten plazan. "Galtzerdiak egiten ere ikasi behar izan genuen...". Hori gutxi balitz, prozesu horren guztiaren erakusketarako enbor bakarretik ateratako mahaia eta aulkiak egin zituzten; eta baita plazara eraman ere!

2014an garia hartu zuten gai. "Guk ezagutu genuen garia Enpaundin. Oso garrantzitsua zen ogia egiteko". Garindarrek garia baserriko erriberan landatu ostean, jaso, eta garai batean egiten zen moduan, "balatan" jarri zuten 2014an. Ondoren, etxean ikasi bezala, gari-sortak jo egin behar ziren, eta horretarako, arbelezko harri bati forma eman zioten. Hortik aleak askatzen ziren. Baina urte hartan lan gehien eman ziena haizatzailea egitea izan zen. "Gari-aleak bertan sartu, nahi duzun neurriko sarea jarri, eta haizea eman behar zaio alea dagoen sareari. Honela, gari-aleen azalak haizearekin alde egiten du, eta aleak saretik behera pasatzen dira, bertan biltzeko".

2015ean ere ez zen nolanahikoa hartu zuten erronka, eta garai batean lixiba egiteko erabiltzen zen modua berreskuratu zuten. "Etxean bagenuen lixiba-harri bat, baina lapurtu egin ziguten. Guk ezagutzen genuen lixiba egiteko prozesua, nahiz eta gurean sekula ikusi ez". Horretarako harri blokea erosi, eta li-

María Elena Garin, euren egindako dezterarekin aizkora zorrozten. Ezkerretara Juan Joxe Garin, beraiek sorturiko eserlekuan sega pikatzen.

xiba-harria egin zuen Juan Joxek. Horrek gainean tina izaten zuen, eta "hau ere guk egin genuen". Lihoz egini-ko arpila izeneko zapia eta harraska ere eurek sortu zituzten, prozesua goitik behera nola egiten zen erakusteko.

2016an erreminta zaharrek zorrozteko "deztera" egin zuten: "Harri egokia lortzea zen garrantzitsua. Dezterak hareharrizkoa behar zuen eta garai batean onenak Igeldon egiten zirela ere bagenekien. Azkenean lortu genuen harri egokia deztera egiteko, baita oinarria egiteko ere. Deztera hareharrizkoa bazen ere, oinarria kareharriz egina zen. Hareharrian hankarekin mugitzeko pedala ere jarri genion, etxeko akazia baten egurrarekin egina".

Eskuak orainean, burua etorkizunean

Baserriko ofizio zaharrekiko maitasun eta artisau-gintzarako berezko trebetasunari esker, Enpaundi baserria urte gutxian nahigabeko museo txikia bihurtu da. Lazkaoko plazan euren lanak erakusten jarri aurretik, dagoeneko, Juan Joxek baserriko erreminta zaharren egurrezko eta burdinazko miniaturak eginak zituen, eta guztiak koadro baten barruan dituzte gordeak, txukun-txukun, izen eta guzti jarriak. Egurrezko idi-parea, uztarriarekin eta gurdiarekin ere eginak dituzte tamaina txikian, eta ikusgai etxeko gune prezia-tuenean, berreskuratu dituzten makinen miniaturrekin batera.

Idea batek bestea dakar atzetik, eta garindarren burua orainari bezala dago etorkizunari begira. Duela bi urte Juan Joxek errota txiki bat sortu behar zuela pentsatu zuen. Lazkaoko plazan erakusteko ez ezik, etxeko artoa irin bihurtzeko ere lagunduko



Goiko argazkian María Elena, Juan Joxe eta Mari Carmen Garin, 2017ko Basherrri egunean Lazkaoko frontoian egin zitzaizen omenaldian.

Erdiko argazkian, baserriko erreminta ezberdinen miniaturak, Juan Joxek eginak.

Beheko argazkian, ezkerretara ikusten da Enpaundi. Gertu, baina aparte zegoen herria. Egun, Enpaundik leku berean jarraitzen du; baserria ez da mugitu; baina herria bai; herria hazi egin da; zabaldu. Enpaundi herri barruan dago jada; herriak irentsi du.

zión errota sortu nahi zuen. Erronka handi horri eutsi eta espezialistei galdezka hasi zen, eta hara eta hona, beharrezko lehengaiak bilatzen. Egurra bazuen, euren basotik ateratakoa, baina errotarriak egiteko harria zen garrantzitsuen. Bila hasi zen, eta azkenean Nafarroan lortu zuen harri bloke egokia. Urte hauetan jo eta su ibili da lanean; eta orain bai, harro esan deza-ke errota ere amaitu duela.

Baserriak zutik iraun dezan

Enpaundi baserritik ateratzean, parez pare topatu dugu saihezbidea. Eta berriro ere errealliteratu bueltatu gara. Patxadaz izandako solasaldia utzi, eta ero moduan presaka bizi den gizartera itzuli gara. Kotxeak kotxeen atzetik aurrera doazen bitartean, Enpaundiko sarreran dauden garoz eta lastoz eginiko bi meta perfektuak atzean utzi ditugu; kanpotik datorrenari nora datorren abisatu nahi baliote bezala. Herriari itsatsita, baina baserriak zutik darrai.

Juan Joxe Garinen oroimenean

Gaixotasun luze baten ostean, erreportaje hau argitaratu baino lehenago joan zaigu betirako Juan Joxe Garin. 2018ko hasiera euritsua bezain tristea izan da Lazkaoko Enpaundi baserrian. Ostarteak zabaltzen diren momentuan jabetuko gara guztiok Juan Joxek utzi digun ondare zoragarriaz. Eta urteak bere zikloa jarraituko du, eta itzuliko da berriro ere iraileko Basherrri Eguna, 2018koa. Udak argituko omen du Enpaundikoak plazara itzuliko diren ala ez; hori esan digu Mari Carmenek. Berak, baina, gogoia baduela dio. Anaia-ri eginiko omenaldirik ederrena litzateke. ■

Redadeg, Bretainiako “Korrika”

BRETOIERAREN ALDEKO URRATSAK ETA GALDERAK

Maiatzaren 13an iritsi zen bere helmugara bosgarrenez bretainiar Korrika. Kemperretik (Penn-ar-Bed) maiatzaren 4an aterata, hamar egunetan bete zituen 1.800 kilometroak. Aurtengo gaia: “Bretoieraren mila koloreak”. Izan ere, denetarikoa hartzen ditu hizkuntza honek bretoieraren lur direla aldarrikatzen dituzten departamentuetan. Finisterrako Plougerneau herrian egin zioten azken harrera eta amaiera ekitaldia. *Chistra* edaten eta *gavotennak* dantzatzu igaro genuen gauraldia.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Ainhoa Gutiérrez del Pozo



Ekitaldian, jada hain gaztea ez den Redadegaren ibilbideaz mintzatu ziren hainbat antolatzaile, azken hamar urteetan egindako lorpenengatik gizarte bretoaia zorionduz. Oroitu zuten, nola lehenago euskal Korrikari heldu zioten bretainiar batzuek, etxera bueltan ametsa eraikitzeari ekin zioten eta hala jaio zen 2008an 600 kilometroko bidea egingo zuen lehen Redadega. Horrela, hamar urte eta 5.000 kilometro geroago, bere bizi eta izaera garatu duen mar txak ahizpatasuna mantentzen du Euskal Herriarekin, elkarri indarra emanez jarraitzen dute.

Aldarrikapenetan ere badituzte beren antzekotasunak biek; bada, kontinentean mintzatzen den azken hizkuntza zeltaren hiztunentzat adrenalina zizta-

da, eta hizkuntza menperatzen ez duenarentzat, hura ikasteko motibazio bat; bada, jakina, hizkuntzaren ofizialtasun aldarrikapen garbia; eta, eskualde bretoiaren zantzu historiko eta politikoetan oinarritutako berrosatze baten eskaera –bretainiartzat dituzten bost departamentuetatik lau dira ofizialki eskualdearen parte-. Baina bada, batez ere, errealitate bat ikusarazteko saiakera, *breton lives matter* bat, bai Estatuarentzat, baita Bretainiako gainerako biztanleentzat ere.

Kontinentera V. eta VII. mendean iritsia, Erdi Arotik aurrera hasi zen bretoiera indarra galtzen, nahiz eta arrastoa utzi atzerapauso bakoitzean. Hala sortu zen galiera, bretoieraren eragina duen hizkuntza erromanikoa. Gaur egun, lau

milioi biztanle inguru dira, eta 200.000 dira bretoieraz mintzo direnak, eta beste 200.000 galiera hitz egiten dakitenak. Alabaina, muga linguistikoaren alde batean zein bestean, ezinezko dute hizkuntza horietan bizitzea. Horrez gain, hiztunen gehiengo handi batek 60 urtetik gora ditu. Berrito ere, *breton lives matter*.

Eta, egoera honetan, zein litzateke aterabidea? Frantses zentralismoak be-launaldi zaharrenetan sorturiko konplexuak bat-batean gainditzea? Eurek ikasi ez duten hizkuntza ikastera eraman ditzatela beren haurrak guraso kezkatuek? Hizkuntza mantendu ala galdu, ardua beren bizkarrean eraman dezatela gazteek? Momentuz hainbat galdera eta zenbait erantzun, eta pauso batzuk, aurrera, korrika: Redadeg. ■

Mireya Andrade

“Bake-akordioetatik ez da ia ezer bete, %18 edo”

Mireya Andrade, Maria Lucelly Urbanoren gerra-izena da. 27 urte eman ditu FARCCen eta erakunde armatuak eta Kolonbiako gobernuak Habanan egindako negoziazioetan parte hartu zuen urtebetez, Genero Gaietarako Azpibatzordeko kide gisa.



Maria Colera Intxausti
@mariacolera

Noiz, nola eta zergatik sartu zinen FARCCen?

1989ko maiatzean izan zen. Nire herriko udal-hauteskundeetan parte hartu nuen, eta zinegotzi aukeratu ninduten, baina Unión Patriótica-ko kideen aurkako mehatxuak izan ziren, tartean nire senideen aurka. Nire mutil-laguna desagerrarazi egin zuten, eta orduan bi aukera besterik ez ziren gelditzen: erbestera joatea edo FARCCen sartzea. Nik bigarrena aukeratu nuen.

Bake-prozesuko neurrien artean izan al da desagertzeak argitzeko ekimenik?

2015ean FARCCek eta gobernuak komunikatu bateratua aurkeztu zuten Kolonbiako desagertuak bilatzeko. Ni talde horretako kidea naiz eta uztailean da lanean hastekoa. Gu bitartean lanean ari gara Nazioarteko Gurutze Gorriarekin, biktimen elkarteekin eta, desagertuen ahalik eta gorpu gehien itzularazteko senideei.

Zenbat dira desagertuak?

Gure herrian, zortzi milioitik gora biktima ditugu, 250.000 hildako eta 50.000tik gora desagertu.

Nazio Batuen Erakundean aurkeztutako azken txostenaren arabera, Bake Hitzarmena sinatu ondoren, 2016-2018 bitartean 216 buruzagi hil dituzte Kolonbian, eta emakumeen aurkako erasoek gora egin dute. Nor dago indarkeria horren atzean eta Estatuak zergatik ez du galarrazten?

Horixe da guk orain daukagun kezka handi bat, giza eskubideen defendatzaile asko, komunitateetan lanean ari diren kide asko, erasotzen ari baitira. Gobernuak ez du ezer egin eraso horiek geldiarazteko, eta gezurra esaten dute hilketen egileei buruz, nahiz eta argi egon paramilitarrak direla hiltzaileak.

Maiatzaren 27an presidente izateko hauteskundeak dituzue Kolonbian, baina FARC alderdia ez da aurkeztuko, zuen iritziz ez baitago baldintza egokirik. Zer dela eta?

Martxoan parlamentua osatzeko egin ziren hauteskundeetan parte hartu genuen eta bageneukan presidente izateko gure hautagaia, gure alderdiko presidente Rodrigo Londoño Timochenko jauna, baina eraso ugari jasan zituen. Gainera,

hura babestu beharra zeukan ESMADeko (Polizia Nazionaleko istiluen aurkako unitatea) kide batzuen bideo batzuk agertu dira, jendeari armak banatzen Londoño erasotzeko. Horrez gain, Londoño osasun-egoera ez da oso ona, eta ez aurkeztea erabaki genuen.

Esaten duzue prozesua airean dagoela, ez dela ari aurrera egiten, eskuina eta eskuin muturra akordioak boikoteatu nahian dabilzalako. Zergatik daude bake-hitzarmenaren eta normalizazio politikoaren edo bizitza politikoaren desmilitarizazioaren aurka?

Ez guk ez komunitateak ez dugu lortu hori ulertzea. Guk konfrontazioa murriztu nahi genuen, eta horretarako garrantzitsua da boterean daudenek hori posible egitea. Ez dakigu zer interes dituzten gerrarekin jarraitzeko. Dena den, gerretan interes ekonomiko handiak daude beti. Eta nahiz eta orain armak utzi egin diren, eta ez ditugun berriz erabili, eta ez dagoen hildako gehiagorik, batzuei gerra interesatzen zaie. Eta, jakina, ez dira haiek hildakoak jartzen dituztenak.

Bartzelonako Literal Liburu eta Ideia Erradikalen Azokan elkarriketatu dugu. Aurtengo edizioak 68ko Maiatzeko 50. urteurrena ospatu nahi du "Galtzada-harrien azpian, liburuak" lelopean. Liburu-orriak pentsamendurako arma bihurtzea da azokaren xedea.

ARGAZKIA: ORIOL CLAVERA





Nola dago Jesús Santrich komandantea, eta zergatik dago gose greban?

Apirilaren 8an atxilotu zuten, narkotrafikoa leporatuta, baina inondik agertzen ez diren frogetan oinarrituta. Bideo bat daukatela diote, baina ez du audiorik. Sinestezina da norbait atxilotzea audio-rik gabeko bideo batean ageri omen denagatik, inolako frogarik aurkeztu gabe. Gaur [maiatzaren 13a] 34 egun daromatza gose-greban eta atzo Kolonbiako gotzaindegia-aren egoitza batera eraman zuten. Mugitu ahal izateko zainetik elikagaiak sartzen utzi zuen, baina ez du gose-greba eten. AEBek bi hilabete dauzkate beren eskaera zehazteko, baina oso litekeena da, gauzak horrela jarraituz gero, Santrichek bizia galtzea.

Ivan Márquez komandanteak dio Santrich hilez gero amaitu dela bakea.

Arrisku handia dago, bai, izan ere, hura hilez gero, zer aurkez dezakegu bake-prozesuko aurrerapen gisa, elkarriketa guztietan parte hartu zuen pertsona bat, bake-prozesua zer zen argien zeukanetako pertsona bat, inolako frogarik gabe salatu, muntaia bat egin eta hil egiten bada, edo estraditatzten badute? Bake-prozesua orain dagoena baino arrisku askoz handiagoan geldituko litzateke. Gainera, akordioetatik ia ezer ez da bete, %18 edo. Gure burkidea hilez gero oso egoera konplexua izango genuke eta gobernuak, gainera, sinesgarritasun guztia galduko luke.

Eta zer gertatuko litzateke? Pentsatzen dut ez duzuela armetara itzultzeko asmorik...

Ez, inolaz ere ez. Gure konpromisoetako bat da orain arte egindako ahalegin guztiekin aurrera jarraitzea, baina armak berriz ez hartzeko konpromisoarekin.

Dena den, zuen militantziaren zati bat ez zen armak entregatzearen aldekoa, haien ustez hori ez baitzen FARCen filosofia, baizik armak politikatik ateratzea, baina entregatu gabe. Zer deritzozu?

Horixe izan da egon diren jarreraren arteko bat, baina bake-prozesuari buruzko erabaki guztiak kontsentsuaren bidez hartu genituen. Denoi galdetu zitzaigun gure iritzia, eta gerrillarien konferentzian denok egon ginen ordezkatuak, egitura bakoitzeko ordezkarien bidez, eta batzarrera eraman ziren alor guztietako batzarretan esandako guztiak. Eta gure erabakia hartu genuen. Edonola ere, bake-hitzarmena lortzeko, ezinbestekoa zen armak ekuaziotik ateratzea.

Kolonbiako bake-prozesuaren ezaugarrietako bat izan da genero-ikuspegiari lotutako neurriak txertatu direla azken akordioan. Dena den, 2016ko erreferendumean, bake-hitzarmenaren aurkariak neurri horiek erabili zituzten beldurra zabaltzeko eta ezezko botoa bultzatzeko. Nola?

Hitzarmenetan jasotako genero-ikuspegi itxuragabetu egin nahi izan zuten, esanez familiak desegin egingo zi-

rela FARCek gizon guztiak homosexual "bihurtu" nahi zituelako.

Eta horrek izan al zuen eraginik?

Bai, gure herrian jendeak asko pentsatu gabe jarraitzen baitu sare sozialetan esaten dena, edo Álvaro Uribek eta antzeko buruzagiek diotena.

Zer prozesu jarraitu zenuten FARC erakunde antipatriarkala izendatu arte?

Guk urte asko generaman genero alorrean aurrerapenak egiten, parekidetasuna lortu nahian, emakumeok eta gizonok eskubide eta betebeharrak berberak izan genitzan. Orduan, genero azpibatzordeak lan handia egin eta gero, gizarteari aurre hartzeko eta jada egiten ari ginenari ize-na jartzeko garaia iritsi zen, eta geure burua antipatriarkal izendatu genuen. Ari ginen horretan, baina izenik jarri gabe. Egin kontu gure kideen %40 inguru emakumeak zirela eta denok, emakume nahiz gizon, zeregin berberak geneuzkela.

Eta nola kudeatu dituzue barne-erresistentziak? Gizonei batzuetan kosta egiten zaie boterea uztea.

Denoi kostatzen zaigu, gizarte beretik baikatoz denok. Gure erakundean sartzeak aspaldidanik indarrean dauden arau batzuk onartzea dakar, eta, beraz, jende berria iristen zenean, egiten zuten lehenbiziko gauza gure arau horiek irakurtzea eta ikastea zen, eta nahitaez bete behar zituzten.



Gure gizarte patriarkalaren seme-alabak garenez gero, iraultzaileak izanda ere rol matxistak erreproduzitzen ditugu. Ba al zenuten sentsibilizaziorako barne-formazioerik edo eskola berezirik?

Bai, jakina. Baina ez guretat bakarrik. Gure formazioak denontzat ziren, emakume eta gizonentzat, eta baita komunitateentzat ere, eta han erregioetako jendeari azaltzen genion gure erakundeak nola funtzionatzen zuen eta zein arau zituen, eta jendeak argi zeukan nola jokatu behar zuen.

Nola kudeatzen zenituzten gerrilla barruko sexu-erasoak?

Bortxaketak, bai gerrillarien bai zibilen aurkakoak, oso zorrotz zigortzen ziren, fusilamenduekin ere. Baina bada askotan kontuan hartzen ez den zerbait: gu, emakumezko gerrillariok, fusila lepoan ibiltzen ginen, eta oso zaila da armatuta dagoen emakume bat bortxatzea.

Eta, orain, gizartea desarmatuta egonik, zein autodefentsa-mekanismo daukazu?

Lehenik eta behin, gizarte osoa kontzientziatu behar dugu ahulenak, emakumeak, aniztasunak, desberdintasunekin zerikusia duen guztia babestu beharraz, baina batasunaren bidez. Bestalde, Habanako bake-elkarriketetan ginela gobernuko kide batek behin galdetu zidan ea zer zen beldurrik handiena ematen zidana. Azido-erasoak

Andraderen esanetan FARCEko kideen %40 inguru emakumezkoa zen.

ARGAZKIAK: UNAI ARANZADI

» “Bake prozesua apurtuko balitz ere, ez gara inolaz ere armetara itzuliko”

» “Gose greban dagoen Jesús Santrich komandantea hilez gero, bake-prozesua arrisku larrian legoke”

erantzun nion, asko hedatzen ari baitira gure herrian eta beste leku askotan. Emakumeak azidoz erasotzen dituzte beste norbaiten jabetza pribatua izan nahi ez dutelako, eta horrek beldur handia ematen du. Hemen gakoa heziketa da, nire ustez.

Zuen erakundeak «feminismo intsurgentea» bultzatzen duela diozue. Zer esan nahi du horrek?

Gure jarduna betitik gidatu duten arauak izendatzeko modu bat da berez. Guk beti bultzatu dugu lan egiteko berdintasuna, eskubide eta betebeharren berdintasuna, eta izen hori jarri dio, gu, beste edozein izan zitekeen bezala.

Emakumeok eta gizonek eskubideak eta betebeharrak baldintza beretan partekatzea da funtsa.

Gaia aldatuz, zein da gatazkaren biktimen eginkizuna, zure ustez?

Gure bake-hitzarmenean biktimak erdi-erdian egon dira, jende askok eta askok jasan baititu gatazka armatuaren ondorioak: jendeak senideak galdu zituen, pertsona batzuk desagerrarazi egin zituzten... Eta bilatzen ari garena, beraz, zera da: egia, justizia, erreparazioa eta halakorik berriz ez gertatzeko bermeak. Hortaz, Egiaren Batzordearekin hori gertatzen dela bermatzen badugu, pozik egon gintezke bake-prozesu honekin.

Egiaren Batzordea martxan da?

Bai, gauza asko antolatzeke dauden arrear, lanean hasita dago. Dena den, Batzordean aurkeztu ziren ponentzien inguruan adostasunik egon ezenez, kide bakoitzak bere bertsioa eman zuen gatazkaren hasierari buruz, eta, modu horretara, bakoitzak bere egia adierazi du gatazka sortzeko arrazoien inguruan.

Azken galdera: zuena askapen-borroka den aldetik, zer da askapena edo askatasuna zuretzat?

Askatasuna niretzat, guretzat, erabaki ahal izatea da, barruko nahiz kanpoko inongo eragileren presiorik jasan gabe erabaki ahal izatea zein izango den gure etorkizuna. ■

Donostiako AHTren geltokiko obra, Garraio eta Obra Publikoen sailburu ohiaren enpresarentzat

Arantxa Tapia Lakuako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak, Eneko Goia Donostiako alkateak eta Iñigo de la Serna Espainiako Sustapen ministroak Donostiako Norteko geltokiaren birmoldaketa proiektua aurkeztu zuten maiatzaren 14an, Donostiako udaletxean. Obraren helburua Abiadura Handiko Trenari sarbidea ematea da eta horren ardura Eptisa/Cinsa ingeniari-tza-Jon Montero aldi baterako enpresen elkarteari esleitu diote, 861.000 euroan.



Axier Lopez
@axierL

2019an hasiko dituzte lanak eta horretarako 861.000 euroko aurrekontua gorde dute. Printzipioz, hamar hilabeteen burutzeko. Geltokiaren estalkiak 5.788 metro koadro izango ditu eta handik Tabakalerara sartzeko aukera izango da. Espazio hori plaza bilakatzea da asmoa.

Eptisa/Cinsa

Eptisa/Cinsaren Administrazio Kontseiluko presidentea Josu Bergara Etxeberria da. Eusko Alderdi Jeltzaleko kide ezaguna da eta hainbat ardura politiko publiko izan du bere gain: 1991tik aurrera Jose Antonio Ardanazaren gidaritzapeko Jaurilaritzan Garraio eta Obra Publikoen sailburua eta 1995-2003 bitartean Bizkaiko Ahaldu Nagusia izan zen, besteak beste. 2003tik aurrera politika instituzionaletik kanpo aritu da. 2008ko martxotik aurrera da Eptisa/Cinsako Kontseiluko presidente.

Bidegi kasuren harira salaketa jarri zuen aurreko legegintzaldiko Gipuzkoako Aldundiak hainbat ordezkari politiko eta enpresaren aurka. Enpresa hHorietako Eptisa/Cinsa da. Ap-1eko obren

zati baten zaintzaren ardura zuen Eptisa/Cinsak eta tramo horretan erabilitako diru publikoaren ustezko erabilera okerrarengatik salatuta zuten. Orotara, bi kereila kriminal aurkeztu zituzten AP-1 autobideko obrei lotuak. Egun auzi horrek irekita jarraitzen du eta epaitegi-tan dago noiz argituko zain.

Fabore trukea

Gipuzkoako Aldundiko aurreko gobernuaren eledun Larriz Ugartek (EH Bil-du) 2015ean salatu zuen zenbait euskal enpresatako Administrazio Kontseiluen osaketak "ulergaitzak" direla. Mario Fernandez "Cabieces auzia" pil-pilean zen artean. Ondorengo egunetan Garak gehiago zehaztu zituen Ugarteren adierazpenak eta argitaratu zuenez, Eptisa/Cinsa enpresaz ari zen Ugarte, eta zehatzago, PSE-EEko Iñaki Dubreuil Churruca Eptisa/Cinsako Administrazio Kontseiluko kideaz. 2011ko urtarrilaren 24tik da kontseilukide, egun horretan Joseba Andoni Leizaolaren (EAJko kide historikoa) lekua hartu zuen. 2001ean ETAK Dubreuil zauritu eta Elektra enpresa-



Josu Bergara da Eptisa/Cinsako Administrazio Kontseiluko presidentea. Aurretik, Bizkaiko Ahaldu Nagusia eta EAeko Garraio eta Obra Publikoen sailburua izan zen jeltzaleen eskutik.

ko bi langile hil zituen. Administrazio Kontseiluan Dubreuil sartu izana EAJ eta PSE-EEren arteko balizko fabore trukeen ondorio izan zitekeela jaso zuen Garak.

EAEn 6.300 milioi AHTrentzat

Asteleheneko agerraldian aditzera eman zuten, 6.300 milioi euro bideratu dituzte honezkero AHTa EAEn eraikitze obretara. Konparaziorako, Eusko Jaurilaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikarako Departamentuaren 2018ko aurrekontua 253 milioi eurokoa da. Hau da, kultura eta hizkuntza politikara 25 urtez bideratutako diru guztia baino gehiago gastatu dute AHTko obretan. 6.300 milioi baino handiagoa izango da azken kopurua, oraindik zenbait obra bideratzeko baitaude.

Lakuako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburu Arantxa Tapiak poza adierazi du EAeko AHTren obrak "erritmo onean" ari direlako garatzen. Lakuaren ardurapean dauden 17 obretatik 12 osatuta daudela azpimarratu du, eta gainerakoek "70-80an daudela" aipatu du. ■

LEHEN ETA AZKEN TELEGRAMAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Washington (AEB), 1844ko maiatzaren 24a. Samuel Morsek lehen telegrama bidali zion Baltimoren zegoen Albert Vail laguntzaileari, eta hark atzera Morseri bidaltzea lortu zuen 19 letraz osatutako Bibliako pasartea. Horrenbestez, telegrafia elektrikoaren aroa abiatu zen. Baina ez zen hura lehen “telegrama” izan, hitzaren etimologia grekoari erreparatuz gero: *tele* (urruti), *graphein* (idatzi, grabatu) eta *-ma* atzizkia (ekin-tzaren emaitza).

Aspaldi hasi zen gizakia mezuak, euskarri fisikoan eraman gabe, urrutira bidaltzen. Sistema batzuek entzumena erabiltzen zuten horretarako. Pertiakio errege Dario I.ak (K.a 522-486), Indiatik Danubiora iristen zen inperio zabalean mezuak bidaltzeko, ahots eta birika oneko menpekoak erabiltzen zituen mezuak batetik bestera oihukatzen. Jende asko eskatzen zuen horrek, gehienez ere 200 metroko distantzian egon behar baitzuten oihulariek. Eta haizeak kontra gogor jotzen zuenean ez zen eraginkorra, ezta mezu sekretuak bidaltzeko ere. Gerora, kanpaiak eta antzeko tresnak erabiliko ziren hotsak urrunago iritsi zitezen.

Baina berehala ikusmena erabiltzen zuten sistemak gailendu ziren. Greziarrek eta kartagotarrak sua erabiltzen hasi ziren. Gero, erromatarrek eta inkekea erabiliko zuten mezu zehatzagoak



CHRISTIAN SCHUSSELE

‘Progresuaren gizonak’ (1862). Erdialdean, eskua mahai gainean duela, Samuel Morse (1791-1872).

bidaltzeko. Eta kezko mezuen sistema nagusitu zen Erdi Aroko eta Aro Modernoko Europan ere. 1588an, Espainiako Itsas Armada Garaiezin Ingalaterrako kostaldera hurbildu zenean, ingelesek Plymouthetik ikusi zituzten ontziak eta handik ordu erdira iritsi zen Londresera berria, keari esker.

Baina sistema horiek ezin ditugu telegrafia optikotzat jo, kode arautu eta bateraturik ez zutelako erabiltzen. Baldintza horiek betetzen zituen lehen sistema Frantzia ezarri zuen Claude Chappé d’Auteroche-k 1792an. Goragune edo dorreetan erloju modukoak jartzean zettan. Orratzak, ordua adierazi beharrean, zeinuak seinalatzen zituen banan-banan, pixkanaka mezua osatzen joateko. Berehala, nahi beste angelutan okertzen

zen hagak ordezkatu zuen “erlojua”, eta angeluak interpretatuz irakurtzen ziren mezuak. “*Télégraph*” hitza ere orduan erabili zen lehenengoz. Sistema mende erdi inguru egon zen martxan, telegrafia lineen sarea ia 5.000 km-ra iritsi zen, 534 estazio zituen eta 30 hiri lotzen zituen Paris hiriburuarekin. Beste herrialde batzuetan ere antzeko sistemak abiarazi zituzten –esaterako, Jose Maria Mathé ingeniari donostiarrak Espainian ezarritakoa–, harik eta elektrizitateak eta Morsek iraultza ekarri zuten arte.

Telekomunikazioetan 1844an piztutako argi hori pixkanaka itzaltzen ari da. Frantzia, 2005ean 900.000 telegrama bidali ziren, iaz 38.000, eta azken telegrama joan den apirilaren 30ean bidali zuten. ■



DORTHE DANGVARD PEDERSEN

Legenarrak Europa du jatorri

Londresko University Collegeko ikerlari batek orain arte egindako legenarraren genomaren ikerketa sakonena egin du, Erdi Aroko *Mycobacterium leprae* bakterioaren 10 genoma aztertuta, eta emaitzak *PLOS Pathogens* aldizkariak jaso ditu. Lan horren bidez, gaixotasunak jatorria Europako hego-ekialdean izan zezakeela ondorioztatu dute. Gainera,

bakterioa gaur egun urtxintxa arruntek duten bera dela ikusi dute eta horregatik uste dute urtxintxa larruen garraioak eta salerosketak gaixotasuna zabaltzen lagundu zuela. Iraganeko datu bitxiak azaleratzeaz gain, arduradunek espero dute lan honek herrialde tropikal askotan oraindik endemikoa den gaitza kontrolatzen lagunduko duela. ■

Mukizapien zuhaitza



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lehen ere idatzi izan dut berari buruz, baina landareek ez dute aspertzen. Aspertu ordeztu bueltan etortzen dira. Duela gutxi gertatu zait etxeko atarian: sua egiteko egur bila atera eta “hara, zer du zuhaitz horrek?”.

Etxe atzeko pendentzean zuhaitz negarti bilduma jarria dut eta haien adar zintzilikarioen negarrak xukatzeko aldaparen beheko barrenean bizi da mukizapien zuhaitza, *Davidia involucrata*. Ezpeletako Bergara etxean 1826an jaio zen Jean Pierre Armand David Haltzuetara apaiz lazaretaren omenez deitzen da *Davidia*. Panda hartzarekin batera berak topatu baitzuen zuhaitz hau Txinan misiolari zebilela.

Urte batzuk baditu, 2004an landatua da, oraindik oso gaztea, baina aurreko lehen aldiz loratu da. Ikaragarritzko poza eman zidan bere lehen loreak ikusteak. Lore xeble samarra du, pilotatxo batean bezala bildutako lore multzo esferikoa da eta gora eta beheara, bi hosto tankerako zuri-zuri edo zuri-laru ditu. Beherakoa handiagoa da, eta zintzilik



dagoen mukizapi baten antza handia du; hortik izena. Hortik *involucrata* abizena, lore esfera inguratzen duen braktea pareak bildua dela esan nahi du. Beste kultura batzuetan usoaren antza ematen diote loreari, eta uso zuhaitza deitu. Zuhaitza heldua edo zaharra denean loraldia ikusgarria da, eta zintzilikario zurien emanak fantasma baten antza ematen dio, hortik beste batzuek esaten diote fantasma zuhaitza.

Itxuraz, Europara bidalitako zuhaitz honen hazietatik sortutako lehena 1906an loratu zen. Ehun urte baino gehiago daramagu Europar zuhaitz erakargarri honen loraldia ikusten, baina oso bakana da. Ez da aurkitzen erraza. Euskal Herriko lorategietan maizago

Ezpeletako Bergara etxean 1826an jaio zen Jean Pierre Armand David Haltzuetara apaiz lazaretaren omenez deitzen da “Davidia”.

topatu beharko genuke. Loraldia ikusi eta ezagututakoan jendeak bere etxe aldamentan jartzeko gogo handiagoa izango lukeela seguru nago.

Euskal Herrian gehiago landatu beharko balitzake. Ezpeletan zer esanik ez. Piperkeriak utzi eta mukizapiaren zuhaitzik ez dutelako pipertu beharko lirateke ezpeletarrak. Nik, erreboten plazan jarriko nuke, joko gorenaren gorazarre. Baita turismo bulegoa bertan izan, eta piperrak gorabehera Ezpeletara etortzen diren guztiek gozatu eta ezagutu dezaten. ■



943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Jaten duguna gara

Zure landareak ekoizteko eta zaintzeko ongarri eta produktu ekologikoetan aukera zabala. Baita landare ekologikoak ere!



ARETXABALETAKO
TOMATEA

Herritarrek jakintzak partekatzetik hedatu den fruitua



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

“Duela zenbait urte Katalunian bizi nintzenean, jada ezaguna genuen han Aretxabaletako tomatea”. Tomato barietate horren inguruan liburua aurkeztu berri du maiatzean Marc Badal Cristina Enea Fundazioko Haziera proiektuko koordinatzaileak. Azken bi urteetan Marta Barba Gassó ikerlariarekin batera egin-dako azterketa jaso du *Aretxabaletako tomatea. Bioaniztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua* izeneko lanean. Euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratu dute.

Tomate mozkorraren historia

Aretxabaletako tomatea, tomate arrosa, tomate mozkorra... Hainbat izen ditu fruituak Debagoienan. Egileek tomate barietatearen historian sakondu dute eskualdeko ekoizleekin elkarriketak eginez eta



Marc Badal eta Marta Barba Gassó-k liburua osatzeko eskualdeko ekoizleei elkarriketak egin dizkiete.

esperientziak eta kezak partekatuz. Izan ere, historia nahiko bitxia du Aretxabaletako tomateak: 80ko hamarkadan ekoizle batek haziak landatu eta gustatu egin zitzaion jasotako tomatea. Hura galtzeko beldurrez, leku seguru batean sartzea erabaki eta ekoizpen ekologikoan ziharduen beste baserri bateko kideari eman zizkion tomate haren haziak. Horrela hasi zuen Aretxabaletakoak bere hedapena, eta hurrengo urteetan zabaltzen eta hobetzen joan zen bai eskualdean bertan eta baita handik kanpo ere.

Barietate “famatuaren” bidez kontzientziak pizten

Badalek uste du jendartearen oroimena ez dela hain ezaguna tomate honen historia. Ibilbidean sakonduz herritarren

artean kontzientzia zioa bultzatzea da egilearen asmoetako bat. “Hazi barietate famatu hauek lagungarriak dira beselako barietateak zabaldu eta jendeak bioaniztasunaren inguruan hausnartzeko”, zioen Euskadi Irratiko *Landaberri* saioan egin dako elkarriketan.

Tomatearen beraren ezaugarri bereziak eta kalitatea bazterrean utzi gabe, bere izaera gizarteko sinergieie esker lortu duela da agian Aretxabaletako tomatearen berezitasun nagusia. Herritarrek lurraldea eta jakintzak partekatzeko izan duten esperientziatik hedatu da: “Aretxabaletako tomatea behetik hedatu da, horizontalki, egungo nekazaritza industrialaren markoan hazien produktzioa eta merkaturatzea inguratzen duten botere jokoetatik urrun”. ■



BIOTERRA
2018

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren,
energia berriztagarrien eta kontsumo
arduratsuen azoka

1 · 2 · 3 Ekaina
FICOPA, Irun.

bioterra.ficoba.org

Ficobara, zafoz euskoaren
trenean! (Irun-Ficoba geltokia)



#Bioterra2018



azoka

JARRI ZURE GAUZAK SALGAI AZOKAN

Nork? ARGIAren Azokan salgai jar dezake edozein herritar, eragile, elkarte, enpresak.

Zer? Era guztietako salgaiak: produktuak, etxeko ekoizpenak, bigarren eskuko gauzak...

Nola? Oso erraz. Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala.

Horko formularioa 5 minutuan betetzen da.

Zertarako? Zure salgaiak Euskal Herriko herritar denengana iristeko, balio berak partekatzen ditugun jendearekin harremanak sendotzeko, eta ARGIA proiektua indartzeko.

www.argia.eus/azoka

GASTEIZKO GAZTETXEA 30 URTE LIBURUA

Sentimendu Gaztetxeroa. Herrigintzak ondutako identitate kolektiboetako bat. Beste kidesun-sentimendu asko bezain polita eta indartsua, bezain miseriatsua eta kontraesankorra. Gurea, besterik ez, horrenbeste. Horixe usainduko duzu orriotako gertakizun eta borroketan. Bere argi-itzaletatik, orainaldian eta etorkizunari begira borrokan jarraitzeko ilusioen, sentsibilitateen, moduen eta arrazoien kontrabandorako erreminta bezala ulertua.

Ezaugarriak:

- Egilea: Gasteizko Gaztetxea.
- 376 orri, koloretan.
- Argazki eta marrazkiz hornitua.



12 euro

ARGIAko Azokan erosi ditzakegun bitxietako batzuk:



Lauburuen belarritakoak

Altzairu eta esmaltez egindakoak.

Neurria: 1,5 cm-ko diametroa.

Tolosako Arteka eskulan dendako produktua.

30 euro



Txori eta katuen irudidun lepokoak

Feltro eta kristalez eginitako zintzilikariak, kordoiarekin.

Zuri-beltzeko hainbat irudi aukeran. Lauki (3,5 cm x 2,5 cm) eta biribil (3,5 cm diametroa) formak aukeran.

15 euro



Eguzki lorearen arantza lokarriarekin

Zilarrez, Andrea Baragaño artisauak egina. Larruzko lokarriak bi neurri ditu, umeena eta helduena.

20 euro



Lana bai, bodega ere bai



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ez dakit Euskal Herritik kanpo ere berdin egiten ote den, baina gurean behintzat ohitura da talde-harremanak sendotzeko-edo, elkartzen gaituena lana, kirola, herri mugimenduren bat edo dena delakoa izanik ere, bazkari edo afari bat antolatzea. Garbi esanda, parrandatxoa (edo -tzarra) egitea.

Bodegara joan dira ARGIAkoak taldea sendotzera. Eskuernagako Candido Besa upategira, hain justu. Autobusean egin dute joan-etorria 50 lagun inguruk. Bertan izan dira lan-taldeko kideak, kolaboratzaileak, eta baita ARGIAren taldeko enpresa diren lametza eta Antzako kide batzuk ere. "Giroa euforikoa izan da hasiera-hasieratik" nabarmendu dit lehen galderan, irteeran izandako batek.

Urtero egiten da horrelako zerbait, baina orain arte aste-barruan antolatu izan da; eta horrek lurraldetasuna ere asko baldintzatzen duela ikusita, aurreko larunbatean egun pasa egitea erabaki dute. Arrakasta izan du planak, batez ere gazteen eta emakumeen artean. "Poza ematen zuen hainbeste emakume gazte ikusteak".

Estik eta Lontxok, Candido Besa upategiaren egungo martxa daramatenek, eta hurrengo belaunaldiko gazteek egin diete harrera autobusetik jaitsi berri-tan. Ezer baino lehen, mahastia erakutsi diete bazkaltzarrei, eta ardogintzari

buruzko hainbat azalpen eman ere bai: ardo ekologikoa nola eta zergatik egiten duten, langileen baldintzak nola dauden jornaleroen artean eta eurek nola lan egiten duten... Herrian pote bat hartu ostean, gosetuta eseri dira mahaira. Bazkari ederra egin dute, elkarriketa bizian. Eta postre garaian, han non agertu den Candido Besa bera. Eta denek harridurarako, Candido eta Esti aita-alabek jotak abesteari ekin diote. "Batzuk malkoari ezin eutsita egon dira", aitortu dit euforikoak. Besatarrek bidea irekita, gitarra zahartxo bat ibili da eskuz esku, inguruko eztarriak kantuan jarritz.

Indartu dezagun indartzen gaituena

Candido Besa upategia ez da kasualitatez aukeratua izan. Euskaraz funtzionatzen du, ardo ekologikoa ekoizten du, nekazari feministen mugimenduko kidea Esti Besa, etxean ARGIA kideak dira... ARGIAren baloreekin bat etortzeagatik joan dira bertara. Baina garraioa ere ez da edozein. Urpa autobusean egin dute bidaia, publizitatea egiteko ARGIA erabiltzen baitu.

Datorren urterako asmoak ere hasi dira ateratzen: Bizkaiko Txakolina oso ona omen da, Zuberoako maskaradak ikustera joateko aukera ere hor omen dago... ■

ARGIAko kide egiterakoan emandako arrazoia

"Arrebak erdi behartu nauelako. Hala ere, bazen garaia ARGIAkoa egiteko eta pozez hartuko dut etxean hemendik aurrera. Aupa zuek!"

Xabier Osa Galdona (Zumaia)
ARGIA Jendea

"Gaurkotasuna, burujabetza, seriotasuna... hau guztia gure hizkuntzan"

Arantza Iraurgi Bilbao (Durango)
ARGIA Jendea

Sarean arrantzatua

Nora Barroso
@axala_n

@argiako langile eta kolaboratzaileen B aldea.
#ArgiaJendea elkarrekin gozatzen. Berezia egun pasa. Milesker!



ZigorEtxeburuaUrbizu
@ZETxeburua

Ederki ibili gara! Bikainak Candido Besaren ardoak. Milesker @argia!

Stalag fikzioa

Amesten al dute israeldarrek emakume naziekin?


Israelgo estatuak 70 urte bete berri ditu eta gertakari horrek literaturan izan duen agerpenaz aritu dira zenbait hedabideren kultur gehigarriak azken asteetan –bitartean, nazioarteko orrialdeetan, hildako palestinarren berri ematen zuten–. Fikzio israeldarraren azken zazpi hamarkadetako errepasoa egitean, ordea, ez da aipatu hango literaturaren fenomeno arraro bat: Stalag fikzioa. 1960ko hamarkadaren hasieran, nazien preso-esparruetan girotutako literatura erotikoa milaka irakurle izan zituen estatu sionistan.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

1961. urtean Adolf Eichmann gerra kriminal naziaren kontrako epaiketa hasi zen Jerusalemen. Israeldar gehienek arreta handiz jarraitu zituzten auzi horretako saioak. Lekukoen testigantzak entzun eta II. Mundu Gerrako masa-hilketa bortitzenetako batzuk ezagutu edo berriz gogoratu zituzten juizio horren bitartez.

Segur aski Hannah Arendt-en *Eichman Jerusalemen* (Klasikoak bilduma, 2007) da epaiketa horri buruz argitaratu den libururik esanguratsuena. “Gaizkiaren banalitatea”-ri buruz pentsarazten du saiakerak, agerian utziz Eichmannek epaiketan ez zuela gorrotorik edo erru sentimendurik adierazi, ezta jarrera bereziki antisemitarik ere.



Milaka juduren heriotzaren erantzule izan zen SSetako kideak “bere lana” egin zuela deklaratu zuen, besterik ez. Eichmann gertuago zegoen funtzionario gris baten jokamoldetik piztia batenetik baino, Arendtek idatzi zuenez: “Fiskalaren ahalegin guztiengatik ere, juizioan denek ikusten zuten gizon hura ez zela ‘munstro’ bat, baina oso zaila zen ez pentsatzea ez ote zen pailazo bat”.

Arendten liburuak polemika eragin zuen, kritikatu zuelako Israelgo estatutak epaiketa nola bideratu zuen. Zenbait lagun galdu zituen eta Holokaustoaren biktimekin sentsibilitaterik ez edukitzea ere leporatu zioten. Bestelako kontakizunak behar zituzten irakurle israeldarrek, zalantzarako tarte gutxiago uzten zutenak. Eta garai berean, epai-ketak herritarren artean pizturiko in-

teresa baliatuz, II. Mundu Gerrarekin lotutako literatura herrikoiki ugari hasi zen iristen Israelgo irakurleen eskuetara. Eli Eshed ikerlariak Stalag literatura aztertzen duen artikulu batean azaltzen duenez, itzulitako liburuak izaten ziren gehienak, zeintzuetan egileek kontaktzen zituzten gerra-presoren zirenean nazien esparruetan bizi izandakoak, abentura-kutsuko narrazioak eskainiz.

Zauriak oraindik bizi-bizirik zeuden eta estatua kontrolatzen zuten botereek kontakizun publikoa marra gorrien artean nahi zuten: giroak asko baldintzatzen zuen II. Mundu Gerraz idaztea, baina publikoaren jakin-minak bultzatuta, argitaletxeak geroz eta apustu handiagoak egiten hasi ziren gerrarekin lotutako publikazioetan. Gainera, formatu berri batean argitaratzen ziren 1939tik 1945era bitarteko gertakarietan oinarritutako liburuok, patrikan sartzeko moduko tamaina zeukaten azal koloretsoko edizioetan –ordura arte detektibe-nobelen, western generoko liburuen edo Tarzan bezalako heroien istorioen esparrua izan zen liburu mota hori–.

Gehienetan pertsonaia zintzo eta gaiztoetan oinarritutako kontakizun manikeoak izan arren, liburu horietan agertzen hasi ziren zirrikitu batzuk, deskribatzen zutelako, adibidez, zenbait nazik preso zeuzkaten pertsonekin izandako jokabide “humanoa”. Gerran “beste gauza batzuk” ere gertatu ziren estermio krudeletik harago: hori adierazten zuten arrakasta handiz saltzen ziren zenbait liburu. Oinarriak jarrita zeuden hurrengo jauzia emateko.

Fantasia sexualak naziekin

1960ko hamarkadako poltsiko-liburuen ugaritze horren barruan, pixkanaka agertzen hasi ziren askatasun sexual handiagoko edukiak. Berritasun nabarmena zen, izan ere, Esheden arabera, sexua erabateko tabua zen gerra osteko literatura israeldararentzat. Eta 1961ean, kioskoetan saltzen ziren liburu-sailen panorama irauliko zuen lana agertu zen, fenomeno bitxi baten lehenbiziko alea: *Stalag 13*. Nobelaren azalean “Yanshuf” izeneko morroi baten izena agertzen zen editore, pseudonimo bat, zeinaren atzean Ezra Narkis zegoen, Elephant argitaletxeko kidea eta 1950eko hamarkadaren erdialdetik negozioan zebilena. Idazlea berriz, Mike Baden delako bat zen, Eli Kedar idazle



israeldarraren ezizena. Kedarrek jada idatzia zuen naziek gerra-presoenzat martxan jarritako esparruetan girotutako beste liburu bat, zaindaria sadikoak protagonista zituena. *Stalag 13*-n, ordea, berritasun bat zegoen: zaindaria emakumeak ziren.

Liburua benetako testigantza balitz bezala merkaturatu zen, Baden gerrako pilotua izan zela aditzera emanez. Istoriolan, naziek preso hartzen dute eta esparru batera eramanez, zeinean emakume zaindarien perbertsio sexualaren menpe geratzen den. Eshed ikerlariak nabarmendu du, gainera, nobelan zaindarien arteko sexu-harreman lesbikoak ere agertzen direla, presoek egindako torturen artean.

Milaka ale saldu zituen. Genero berri bat sortu zen: naziek gerra-presoenzat antolatutako esparruetan girotutako eleberri erotikoak. Liburuaren azaleko ilustrazioetan emakume naziak uniforme estuz jantzita agertzen ziren, eskote zabalekin eta *dominatrix* itxurarekin. Eta Stalag generoko lehenbiziko liburuetako sexu-eszenak gaur egungo irakurlearentzat nahiko xaloak gerta daitezkeen arren, garai hartako irakurle israeldarrak probokatzea lortu zuten.

Formula asmatuta, behin eta berriz errepikatu zuten literatura herrikoia publikatzen zuten zenbait argitaletzek, bariazio txikiekin. Ia beti istorio bera kontatzen dute Stalag liburuek: soldadu britainiar edo estatubatuar bat alemaniarren atzaparretan erortzen da, preso eramaten dute esparru batera eta han basatiki torturatzen dute emakume nazi krudelek, istorioaren amaieran protagonistak askatzea lortu eta zaindarien kontrako mendekua hartzen duen arte, bortizkeria sexual handiko eszenetan.

Salbuespen bakarrenetarikoa eta, Esheden arabera Stalag generoko lanik onena, 1963ko *Ni nintzen Stalageko komandantea* nobela da, Martin Rosenberg ezizenarekin Meron Urielek argitaratutakoa. Emakumeak dira presoak kasu horretan, ez gizonak. Eta eremua kontrolatzen duen ofizial naziaren ikuspuntutik kontatzen da istorioa: bere biktimak indiferentzia handiz torturatzen ditu, gehiago arduratzen du beste naziekin daukan botere-lehiak. Kezka moralik gabeko bortizkeria horrek eta erakusten duen aginte-goseak ispilu-jokoa egiten du, ikerlariaren ustez, Eichmannen figurarekin.

» Adolf Eichmannen aurkako epaiketak
II. Mundu Gerrari buruzko jakin-mina piztu zuen Israelen eta gaiari buruzko literatura herrikoia asko ugaritu zen, tartean, gerra eta erotismoa uztartzen zituen Stalag generoa

» Emakume nazi sadikoen menpe zegoen soldadu aliatu baten istorioa kontatzen zuten Stalag generoko nobela gehienek

» Ari Libsker zine zuzendariaren ustez, Israelgo estatuak Holokaustoz zabaltzen zuten imaginarioa ere pornografikoa zen eta Stalag fikzioak traumari aurre egiten lagundu zien estatu sionistako gazteei

“Pornoграфия” ofiziala eta pornoграфия literarioa

Ibilbide laburra izan zuen Stalag fenomenoak, argitaratzen hasi eta bi urtera debekatu baitzituzten mota horretako liburuak Israelen. Gero, gainera, horrelako materialak publikatu zituzten editoreak “pornoграфия hedatzeagatik” zigortu zituzten eta polizia liburuak konfiskatzen aritu zen, haien zirkulazioa bigarren eskuko liburu-dendetara kondenatuz, arrakastaren leihoa ireki zien prentsako kioskoetatik urrun. *Ni nintzen Schultz koronelaren puta pribatua* izeneko nobelaren ondoren jo zuen legearen ukabilak liburu hauen aurka: lehenbiziko aldiz pertsonaia judutar bat agertzen zen nobelan ofizial nazi baten menpe.

Urrunegi joatea zen hori garai hartan eta generoa lurperatu zuen estatuak.

Ia 40 urtez Israelgo literaturaren historiari ezkutuan eduki ondoren, Ari Libsker zuzendariak Stalag fikzioari buruzko dokumentala estreinatu zuen 2007an, berriro B serieko istorio hauek hizketarako gai bihurtuz. *The Times of Israel* egunkariari egindako adierazpenetan, Libskerrek esplikatu zuen bere belau-naldiko beste israeldar batzuek ere bizi izan zuten egoera arraroa: nazien masahilketetatik bizirik atera ziren juduen biloba izanda, kontzentrazio-esparruak eta gerra hura ezagutu gabea, eskolan ikasi zuen zer izan zen judutarren es-terminioa. Basakerien irudiak, askotan emakume biluziak protagonista zituztenak, klasean ikusarazi zizkieten sarritan –besteak beste, Bergen-Belseneko kontzentrazio esparruko hobi komun batean pilatutako milaka gorpuak edo Letonian naziek masiboki fusilatu aurretik biluzarazi zituzten emakumeak erakusten zitzaizkien ikasleei, judutarrek jasandakoaren berri emateko–. “Holokaustoa- ren memoria pornoграфия bihurtu zuten, mundu guztiak arreta jartzen zuen gauza grafikoetan eta izugarrikerietan”, esplikatu zuen Libskerrek. Bere ustez, II. Mundu Gerrari buruzko kontakizun ofizial horrekin lotura eduki zuen Stalag generoarekin arrakastak. “Jendeak traumari aurre egin behar zion eta gazteek Stalag erabili zituzten horretarako”.

Beste zenbaiten ustez, Stalagek halako arrakasta lortu zuten, liburu horiek zirelako literatura porno ia bakarra eduki sexualak zentsuratzen zituen estatu batean. Badira gaiari buruzko interpretazio psikologikoak egiten dituztenak ere: publiko israeldarrak gaizkiaren erotismoa bilatzen zuela istorioetan, Stockholmeko sindromeak jota nolabait. Eta ikertzeko geratzen da, adibidez, zergatik identifikatu zituen genero honek emakume dominatzaileak judutarren etsai goren ziren naziekin.

Nolanahi ere, Israelgo estatuak sortu zenetik 70 urte pasa direnean, sadismoa, erotismoa, heriotza eta morboa uztartu zituen Stalag fikzioa erdi-ezkutuan dagoen fenomeno da oraindik, estatu sionistaren memoria kultural ofizialak gogoratu nahi ez duen zerbait izango balitz bezala. Errudun sentiarazten dituelako ote? Eta, hala balitz, ez ote lukete beste gauza batzuegatik sentitu behar errudun? ■



Azucena Vieites

Ustekabea eta askatasuna



Xabier Gantzarain
@gantzarain

FUNDIDO ENCADENADO-BREAK YOU NICE (2012)

Serigrafia paper gainean. Neurri aldakorrak.

Azken urteotan Madrilén bizi da Azucena Vieites García (Hernani, 1967ko ekainaren 13a), Salamancan eta Complutensen dabil irakasle. Garai batean umeentzako tailerrak ematen zituen, irakatsi baino gehiago ikasten zuela zioen. Reina Sofia museoan egindako bakarkako erakusketan jarri zituen lanok: bere marrazkiak eman eta margoitzeko eskatu zien umeei. Erakusketa bukatzean ume bakoitzak bere lana etxera eraman zuen.

Ustekaberako gaitasuna, konbentziorik eza, askatasuna, hizkuntza eraikitze-ko ahalmena gustatzen zitzaion umeen margoitzeko modutik. Bere lanak ere antzeko ezaugarriak izan ditu beti. As-

katasun harrigarritz josten ditu handik eta hemendik hartutako txatalak, beti ere ikusizko kultura garaikidearen kodeak erabiliz, irudietan esku hartuz, collageak eginez askotan. Fanzineetatik eta Zuk-zeuk-egin kulturatik edan du, nabari zaio lanean.

Azucena Vieitesen lanean ardatza izan da feminismoa. 1994an Erreakzioa/Reacción kolektiboa sortu zuen Estibaliz Sadabarekin batera, eta urte askoan aritu ziren lanean, Arteleku hartuta epizentro. Hantxe antolatutuz, 1997an, *Zure begientzat soilik: faktore feminista ikusizko arteetan* mintegi-tailerra, gerora ere ubera utzi zuena. Jende askorentzat mugarrira

izan zen arte munduko debate feministan.

Bizi gaituen garaia harrapatu nahi du artistak bere lanean, ikusizko kultura batik bat, handik eta hemendik jasotzen ditu irudiak, moldatu egiten ditu, ebaki, aldatu, beste modu batera josi, beste esanahi bat eman munduari bere jardunarekin.

Artistak ongi daki: irudiak eraiki egiten dira. Eta berezkoak diruditen horietatik dira eraikienak, bestela bezala agertzen direnak, normalak bailiran ekartzen dizkigutenak. Xedea ez da eraikitakoak direla erakustea soilik, hautsi eta beste zerbait esatera behartzea baizik. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gailurraren makurkeriak



Iratxe Retolaza


Haritz Monrealek *Mendi literatura* (EHU, 2017) saiakeran gogora dakarren moduan, diskurtso literario ugari garatu dira mendi-esperientzien inguruan: mendizaletasunak izan du kutsu heroikorik, oztopoak gainditzearen ikurtzat harturik; edo, esperientzia estetiko baten oihartzuna badakar, mendizalea paisaiaren miresle bihurturik; edo, elkartasunaren eremutzat irudikatu da, gailurrerantz elkarrekin ekitean gorpuzturik; eta besteak beste, menditartasun idiliko batek zeharkatu du euskal literatura erromantikoa (euskararen babesleku, harmoniaren gune, oreka iturri, eta abar). Mendiaren sinbologia eta mitologia horien oihartzunik bada Aingeru Epaltzaren *Mendi-joak* narrazio-bilduman, betiere ertzak agerrarazteko, edo esperientzien gazi-gozaok kontatzeko, edo jendetasunaren ahulgunez aritzeko.

Hamar narrazioetan mendialdearekin askotariko harremanak bildu dira, baina, guztietan aisialdi-jarduera da mendizaletasuna, nahiz eta aisialdiaren iruntzia ere kontatzen zaigun, mendi-langileei ere ahotsa ematen zaielako (mendi-gidariari, aterpeetako zerbitzariari, basozainari edo biologoari). Pertsonen arteko harremanak dira narrazioen muina. Narrazio-ahots ugari erabili ditu pertsonen arteko tentsioak eta minak kontatzeko (perspektibismoa, distantzia ironikoa, ume ahotsa, eta abar), baina, etengabeak dira narrazio-teknika zenbait, ikusmena eta el-

Mendi-joak

AINGERU EPALTZA

Elkar, 2017



karrizketak ardatz dituztenak: gorpuzkeraren eta aurpegieraren deskribapen xeheak, paisaiaren ñabardurak, desira-printzak, jauziak gertaeretan, ikuspegi-aldaketak narrazioan zehar...

Mendiak bizi ditu protagonista asko, eta grina horrek tirabirak dakarzkie senideekin, lagunekin, maitaleekin edo bere buruarekin.

Mendi-giroan makurraldiak dituzte:

bekaizkeria-sentimenduak, norgheia-gokak, koldarkeriak, adiskidekeriak, eta abar. Izan badira gertaera edo ahots ugaritan gizonkeriaren oihartzunak, agerikoak eta hanpatuak, emakume zein gizon pertsonaiengan zauriak eragiten dituztenak. Mendiaren begirada erromantikorik ez da bilduman, garraztasunak, lehiakortasunak eta zaurgarritasunak jotako gizartea baizik. ■

Aingeru Epaltza Ruiz de Alda idazlea (Iruñea, 1960).

RUBEN PLAZA



» KONTZERTUA

Ilusioa eta eskarmentua



Montserrat Auzmendi del Solar

Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak, hamazazpi urtetako ibilbidean, fruituak eman ditu, dudarik gabe. Fruitu hauen artean, Musikene Orkestra Sinfonikoa aipagarrienetako bat da. Gauza bat da bakarlariak trebatzea, artistak formatzea, baina formazio hori hankamotz geldituko litzateke ikasketa planek ikasleak talde instrumental handiagoetan parte hartzera bultzatuko ez balituzte.

Asmo horrekin eratu zen ikastegi honen Orkestra Sinfonikoa, eta, Arriaga Antzokian entzundakoaren arabera, esan dezakegu benetako lan ona egiten ari direla.

Orkestra gazte honen ilusio eta adorea-ren kontrapuntu gisa, Donostiako Orfeoia-aren eskarmentua izan genuen taula gainean, eta, bien artean, benetako gutizia den Cherubini-*ren Requiema* interpretatu zuten, Víctor Pablo Pérez maisuaren batutapean. Berezia da requiem hau, famatuak diren beste batzuekin (Verdiren edo Faurérenarekin) konparatzen badugu. Agian Cherubinirena ilunagoa egiten zaigu, baina baditu pasarte tentsiodun eta haserrekorrak tartean. Orfeoia jakin izan zuen, orkestraren azpimarrarekin, ñabardura guzti horiek nabarmentzen. Hasierako *Introitus* delikatua izan genuen. Nahiz eta *Dies Irae* plano samarra atera, *Sanctus* sendo eta enpas-

Bartók eta Cherubini-ren lanak

MUSIKENE ORKESTRA
SINFONIKOA.
DONOSTIAKO ORFEOIA.

Zuzendaria:
Víctor Pablo Pérez.
Bilboko Arriaga Antzokia
Maiatzaren 13a

*Musikene Orkestra Sinfonikoa
eta Donostiako Orfeoia,
Bilboko Arriagan*

tatua entzun genuen. Bukaera, erabat mistikoa, emanaldiaren une onenetakoa izan zen.

Baina obra hau ez zen izan saioaren eragin-
garri bakarra. Béla Bartóken *Biola eta orkestrarako kontzertua* aukera paregabea izan zen Yana Kutxerova biola jotzaile gaztearen luzimendurako. Errusian jaioetako musikariak Musikene ikastegian jaso zuen formazioa. Sari ugari jaso ditu hainbat lehiaketatan eta kontzertu asko ere eman ditu Europan zehar. Teknika segurua erakutsi zuen, eta, inportantea, soinu afinatu eta beroa, oso atsegina. Horrez gain, adierazkortasun orekatua du, elegantea. Bartóken kontzertua ez da lan erraza. Konpositorearen berezitasunak –folklorearen eta abangoardiaren uztartze pertsonala, hori guztia forma sendo eta tradizional batean– ongi adierazteko Kutxerovak duen heldutasun musikala behar da. Publikoa txundituta geratu zen. Zorionak! ■





Utopiari esker

GALA BEDI SARI BANAKETA

Maiatzaren 18an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

ARGAZKIA: HALA KLIK

Utopia bat espazioan. Hori da Gasteizko Hala Bedi komunikazio proiektuak bere 35. urteurrenerako darabilen leloa. 1983an irratia ireki zen eta mar-txan jarri zutenean inork gutxi-
pen tsatuko zukeen 2018an, trabak traba, halako indarrez egongo zenik. Eta horixe irudikatu nahi izan zen pasa den maiatzaren 18an Jimmy Jazz aretoan, lehenbiziko Gala Bedia eginda. Gala eta sari banaketa izan zen. Bertan herri mugimenduaren hainbat espresio ikusarazi nahi izan ziren eta denen topaleku egin, bestela ere mugimendu askoren topaleku baden komunikabideak antolatuta. Lau sari eman ziren bertan, umorez, musikaz eta aldarrikapenez josita.

Lehena *Halabeditarrak saria* izan zen. Honekin, komunikazio proiektua babesten duten Halabelarri edo irratia-
ren bazkide direnak eskertu nahi izan ziren. Taula gainean, irratiko txikienak: *Alai Bedi* haurren irratsaiokoak. Mugimen-

du feministari, Pentsionistak Lanean elkarteari, Gasteizko Gaztetxeari eman zitzaizkien eskerrak, eta eurek ere eskertu zuten komunikazioan emandako laguntza. Bakarkako bazkideak ere eskertu nahi izan ziren, oholtzara bazkide egin den azkena igoarazita.

Segidan, eta *Bertxoko* saio irreberente-
teko lagunak kantuan, *Herria Bizirik saria* eman zitzaion GES gazteen emantzipazioarako sareari. Urtean zehar egin duen lana saritu nahi izan zen honekin, ez baita gutxiestekoa talde berri honek aurtun egin duena: alde zaharrean utzita zeuden hainbat etxebizitza okupatu eta bizileku bihurtu dituzte. Eurek, halaber, Udalarekin izan dituzten ika-miketari lagun izan duten abokatuari saria eman nahi izan zioten, eta etxebizitza baten giltzak eman.

Hirugarrenik, *Kakatzarra* arte eszenikoen irratsaiokoek *Utopia saria* eman zioten Aiaraldeko Ekintzen Faktoriari: hedabidetik, komunitate proiektu kooperatibo integral batera egin dute salto, euskara oinarri hartuta. Harri duraz hartu zuten saria eta halaxe adierazi: "gure

utopia euskararen herria da, eta euskararen Aiaraldea bilatu nahi dugu".



Azkena *Hala Mierda saria* izan zen. Izen horrekin, azalpen askorik ez da behar zein sari mota izan zen jakiteko, ezta? Sarituak Gasteizko Udaltzaingoa eta Delinkentzia Kanpora elkartea. Hala Bideok egindako muntaia batek azaldu zuen sarien zergatia: udaltzainena nahiko argia zen, eta elkartearena ere bai gasteiztarrantzat, Astegietan auzoan ijito familia bati bizitzen ez uzteko egin dituztenak sobera baitira ezagunak.

Sari eta sari artean izan ziren musika tarteetan Jaio Kantaktriz eta Ziakhus-ek hartu zuten parte, baita Miren Ricok ere poesia irakurraldia eginez.

Finean, Hala Bedik berak herri mugimendua eskertu nahi izan zuen urteetako sostenguagatik eta esker horiek bueltan eman zitzaizkion. "Sukaldariak" denok jatera gonbidatu aurretik, esaldi honexekin amaitu zen ekitaldia: "*Ara comença el Mambo!*". Hortik aurrekoak, sentitzen dut, baina ez dizkizuet kontatuko. Hurrengoan, etorri. ■



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Itziar Okariz artista donostiarrak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak


Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.



5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Enparantza. 2. Motz.
3. Baserriko animalia. 4. Zeurea.
5. Laborantza tresnak.




Hizki berak

Osa itzazu hitzak falta direnak hizki berak
direla kontuan izanik, hori bai, hurrenkera
ez da zertan bera izan.



Ebazpenak



"Hizkuntza prozesu oso konplexua da, ez argia. Hau da, adierazle batek ez dauka esanahi zehatz bat eta bakarra, askoz ere malguagoa da."

5X5:

1. Plaza, 2. Labur, 3. Abere, 4. Zurea, 5. Areak.

Hizki berak:

1. Miazkatu, 2. Baimendu, 3. Aiamamoko, 4. Eramaille, 5. Biktimaik, 6. Ekonomia.

María Figols. Osasuna zimenduetan



Laster hasiko da Agotzenea egitasmoa itxura hartzen: Ander Magallon eta Urtzi Arrieta gazteek bultzatuta, ekohezkuntza zentro bat eraikiko dute Zubirin, Nafarroan. Bioeraikuntza ikastaroa eskainiko dute uda osoan, eta bertako ikasleek lagunduko dute eraikuntzan. María Figols (Zaragoza, Aragoi, 1981) izango da ikastaro horretako formatzaileetako bat. Ez da alferrik arloko ahots kualifikatuenetakoa.

“Bertan bizi direnak gaixotzen dituenak, eraikin gaixoa da”



Ander Perez

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Eskuak lokatzetan

“Nire ama etxea margotzen ari zela in-toxikatu zen, margoaren lurrunarekin. Susto hutsa izan zen, baina orduan hasi nintzen arkitekturaren beste ate batzuk jo eta eskuak lokatzetan sartzen. Literalki: lurrarekin lan egiten hasi nintzen, arkitektura tradizionalari buruz ikasten, eta ekologia eta osasunari buruz hausnartzen. Pirinioetan bioeraikuntzan aritzen zen aparejadore batekin hasi nintzen lanean, Carmenekin. Gero, ni Indiako Auroville Earth Institutuan nintzen bitartean hil zen: hark martxan utzi zuen obraren bat edo beste, eta hartu egin nituen. Egun, bioeraikuntzaren irakaskuntzan dihardut, eta Espainiako Baubiologie Institutuko lehendakariordea naiz. Zaragozako La Almunia Unibertsitatean diplomatu nintzen arkitektura teknikoan”.

Zer da bioeraikuntza?

Bioeraikuntzak zentzua ematen dio eraikuntzari, arkitektura tekniko eta konbentzionala humanizatzen du, eta arkitektura tradizionala errespetatzen du. Eta hori guztia, bere jarduerak gure planetan eta eraikinetan bizi garenon osasunean duen talka kontuan hartuta. Bioeraikuntzak gizakiak bere inguruko eraikinekin dituen harremanak aztertzen ditu. Izaera integrala du: etxe bat eraikitze behar diren materialak hartzen ditu kontuan, baita hura eraikitze-ko tokia ere.

Zein neurritan eragin dezakete eraikinek gure osasunean?

Zaila da zehaztasunez hitz egitea, pertsona bakoitzak sentsibilitate ezberdina baitu, baina alergiak, hipersentsibilitateak eta ingurugiro gaixotasunen kasuak hazten doaz, eta faktore komunak dituzte: atmosferaren kutsadura, aldaketa klimatiko antropogenikoa, erradiazio ez ionizatzaileenganako esposizioa, kimika sintetikoaren egindako produktuak... Gure egunerokoan aurki ditzakegun eragile kutsakorrek dira, eta

horietako batzuk gure eraikinetan daude, bai erabili diren materialengatik, bai mantentze eta aireztatze lan eskasak egin direlako baita bestelako eraikuntza patologiangatik ere.

Izan ere, gure denboraren ia %90 ematen dugu eraikinen barruan.

Bai, hori dio OME Osasunaren Munduko Erakundeak. EPAk (AEBetako Ingurugiro Babeserako Agentzia), gainera, zera dio: eraikinen barruko airea kanpokoa baino 3-5 aldiz kutsatuago dago. Beraz, ziurtatua dago elementu kutsakorren ganako esposizioa. Gainera, naturaren-gandik urruntzen goaz, eta natura da gure organismoa erregulatzen duena. Beraz, geroz eta tresna gutxiago dugu defentsarako.

Kontziente al gara horretaz?

Orokorrean, ez. Gure eguneroko estresantean, ingurugiroarekiko harremana ez da lehentasuna izaten. Sektoreari, gainera, ez zaio interesatu izan airearen kalitateaz, erradiazioez edota eraikuntza materialek isurtzen dituzten sustantziez hausnartzea. Gure etheen azaleko



edertasunaz arduratu izan gara, eta material naturalen erabilera hippien txabolekin, antzinako eraikinekin edo ordaindu ezin ditugun goi mailako etxeekin lotu ohi dugu. Baina ez da hala: eraikin eder batek barrutik eta kanpotik behar du ederra, eta horretarako ezinbestekoa da osasungarri izatea. Horrek, berez, ez luke kostu handiagorik eragin beharko.

Zer da eraikin gaixo bat?

Bertan bizi direnak gaixotzen dituenak. OMeren arabera, eraikin batean bizi direnen %20ak sintoma beretsuak agertzen dituenen –arnas bideen lehortze eta narritadura, azalaren eta begien narritadura, buruko mina, nekea, hotzeriak– eraikina gaixo dago. Zentralizatutako aireztatzeko sistemak, akabera sintetikoak, hezetasun erlatibo baxua, hermetismo handia eta mantentze desgokia duten eraikinak dira.

Eta zer da eraikin osasungarri bat?

Osasuna ez da gaixotasunik eza, ongizate fisiko, mental eta sozial osoa baizik. Beraz, eraikin osasungarria osasuna ematen diguna da, ez bakarrik gaixotzen

“Gure etxeen azaleko edertasunaz arduratu izan gara, eta material naturalen erabilera hippien txabolekin, antzinako eraikinekin edo ordaindu ezin ditugun goi mailako etxeekin lotu ohi dugu. Baina ez da hala”.

ez gaituena. Eraikin osasungarri batean, arkitekturak, ubikazioak, inguruarekiko harremanak eta materialek konforta, ongizatea, eta hortaz, osasuna eskaini beharko lukete. Ingurugiroarekiko errespetuz eraikitakoak dira. Bizitzarako pentsatutako, eraikitako eta habitatutako eraikinak.

Izatez, ez da ezer berririk. Arkitektura tradizionala berreskuratzean datza.

Hori da. Bioeraikuntzak herri arkitekturaren erabili ohi diren materialak berreskuratzen ditu, gaur egungo beharretara egokituz. Eraikuntzak motor ekonomiko gisara izandako hazkundeak eraikuntzarako epeak aldatzea ekarri zuen, etekinak bizkortuz. Eraikitzeko arteak hormigoi armatura pasa ginen, obra handietara, garapen teknologiko handietara, naturak ematen dizkigun materialak alde batera utziz. Ahanzturak

gainbeheran doan ondare tradizionala utzi du, itxuraz balorerik ez duen iragana aurkeztuz, eta modernitatearen eta aurrerapenaren itxurak eginez. Baina errealitatea da gure eraikuntza tradizioa bizirik dagoela, aberatsa dela, eta bere iragana izateaz gain, balio handia duela orain eta etorkizunean.

Bioeraikuntza mendiko txabolarekin lotu da. Irudi hori aldatu nahi duzue.

Egia da modu horretan egindako etxe txiki asko daudela mendian eta landa eremuan, errazagoa izan delako ingurugiroarekin lotura hori nahi duten promotore pribatuak aurkitzea. Baina bioeraikuntza batez ere hirian da beharrezkoa, han behar delako osasuna, lurra eta ingurune naturala berreskuratu. Horregatik behar du garaikidea izan. Bioeraikuntza, izan ere, ez da joera estetiko bat, bizileku osasungarri, eraginkor eta jasangarri baten beharra baizik. Eta bat dator joera estetiko garaikideekin. Beraz, mendiko txabola bat egin dezakegu, baina baita etxebizitza eraikin bat ere, hiri erdian. Natura bera da mugak jartzen dituenak. ■



"Zer uste dute Bizitza Da Handia-ko hippie horiek, guk ez dakigula pankarta moloia egiten, ala?" adierazi du balkoitik Markel Olano ahalduak.

Zubietako erraustegian kanpoko zaborra erretzeak "turismoa erakarriko du" Gipuzkoako Aldundiaren arabera

"Zaborra ez da bakarrik etortzen, ekarri egin behar da, eta horrek inpaktu ekonomiko positiboa eragingo du ostalari-tza sektorean", esplikatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak prentsa ohar batean. Azken berrien arabera, Gipuzkoak ez du nahikoa hondakin sortuko erraustegia martxan jartzeko, baina hori ez da problema arduradun foral-

tzat. Azaldu dutenez, martxan jartzeaz dira "San Sebastian Toxic Region" kanpaina, nazioarteko zaborrak Gipuzkoara erakartzeko. Horren bidez, Europako "kalitate altueneko" zaborrak etorriko dira Zubietara: "Puntako teknologiarekin erreko ditugu eta tximinitik aterako den keak Nenuco usaina edukiko du", Gipuzkoako arduradunek baieztatu dutenez.

SAREAN ARRANTZATUA

Hik bolcha gogor hortikan...



Apur bat gehiago aplikatzea falta, bai



ARGIAren harpidetza egin du futbolzale batek, hiru asterako

Espainiako futbol liga amaitzerako helburu bat jarri zion Gaztai Buru realzaleak bere bizitzari. "Bakarren batzuek erabakitzen dute erretzeari uztea, edo kirola egiten hastea", esan digu. "Nik erabaki dut gauza sakonak egitea, intelektua elikatzea eta hori, ez dakizu? Orduan, hiru asterako harpidetza egin dut. Ekainaren 15ean Espainiako selekzioak debuta egingo du Munduko Kopan eta, klaro, ba etxeko tald... barka, gauza horrek

etxeko jokalariek dituenek, Illarra-eta, ba hori... gure selekzi... mundu osoko selekzioek arreata osoa eskatuko didatela. Baina zin egiten dut Espainia kanporatzean, kanporatua baldin bada zeren eta kristolako ekip... lehia handia izango denez, berriro egingo dudala ARGIAren harpidetza, burujabe izan nahi badugu beharrezkoa delako gure proiektu komunikatiboak laguntzea, euskaldunak, jato... Marcaren osagarri ezin hobeak."



Gaztai Buru, urdinez, bere lagunekin ARGIAren harpidetza eredu berriaz solasean.

Alberdi EUSKAL
ARTISAUTZA

MAKILA



OPARI BEREZIETARAKO · PERTSONALIZATUAK · PREZIO AUKERA DESBERDINAK

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



 **ARGIA**

ESKAERAK: azoka.argia.eus | ☎ 943 371 545



ARGIA Jendearen **AZOKA**n elkar elikatzen dugu **Guretzat musutruk!**

**Ostegun goizero jarriko ditugu eskura
musutruk diren eskaintzak. Bixi ibili!**

Astero Bizi Baratzeako bi lamina eta askoz gehiago

